


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

Hizkuntza ukipenaren eragina: *kalko* *okerrak* euskaltegiko ikasleen ekoizpenetan

Zuberoa Barbolla Arlanzon
Euskal Ikasketetako Gradua

Gradu Amaierako Lana
2022ko ekaina

Tutorea: Maria Jose Ezeizabarrena
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Aurkibidea

| | |
|---------------------------------------------------------------|----|
| 0. Laburpena | 3 |
| 1. Hizkuntzen arteko ukipena | 5 |
| 1.1 Ukipenak eragindako fenomenoak..... | 7 |
| 1.1.1 Maileguak | 7 |
| 1.1.2 Kode alternantzia: code-switching edo code-mixing | 8 |
| 1.1.3 Kalkoak..... | 10 |
| 1.2 Kalko motak | 11 |
| 1.3 Kalkoen onargarritasuna:kalko okerrak | 14 |
| 2. Ikerketa-lana | 15 |
| 2.1 Testuingurua..... | 15 |
| 3. Ikerlan-egitasmoa | 17 |
| 3.1 Helburuak | 17 |
| 3.2 Diseinua | 21 |
| 3.2.1 Parte-hartzaileak | 21 |
| 3.2.2 Materialak | 21 |
| 3.2.3 Prozedura | 21 |
| 3.3 Lanaren aurreikuspenak | 23 |
| 4. Ikerketa pilotua | 24 |
| 4.1. Metodologia | 24 |
| 4.1.1 Laginak | 25 |
| 4.1.1.1 Parte-hartzaileak | 25 |
| 4.1.1.2 Prozedura eta materiala | 25 |
| 4.1.2 Datuen analisisa eta bilketa | 26 |
| 4.1.2.1 Idatzizkoa | 26 |
| 4.1.2.2 Ahozkoa | 28 |
| 4.1.3 Emaitzak | 30 |
| 5. Ondorioak | 35 |
| 6. Bibliografia | 37 |
| 7. Eranskinak | 40 |

0. Laburpena

Gaur egun, hizkuntza aniztasuna dugu komunitate gehienetan. Horratik, hiztunontzat ohikoa bihurtu da hizkuntza bat baino gehiagorekin bizikidetzan egotea. Elkarbizitza horrek hizkuntza horien arteko ukipena dakar, alegia, batak besteari eraginen bat sortzea. Baina, gehienetan, bizikidetzan diharduten hizkuntzek ez dute estatus bera izaten; batzuek nagusitasuna dute, normalean ofizialek, besteak, aldiz, gutxituak izaten dira. Estatusak, jakina, harremana du eragiteko ahalmenarekin. Horrela, hizkuntza nagusiak gutxituarengan eragin handiagoa izango du, ahalmen handiagoa du-eta. Nolanahi ere, estatusak gorabehera, biek eragiten diote elkarri hein handiago edo txikiagoan. Eta lan honek hori du xede, hots, bi hizkuntzen arteko bizikidetzan, kasuon gaztelania eta euskara, batak besteari eragiten diola frogatzea, ez, ordea, influentzia hori balioztatzea ez eta epaitzea ere.

Era horretan, azken urteetako irakasle eskarmentuan oinarrituz, nire laneko ingurune hurbila baliatu nahi izan dut gaztelaniak euskaran duen eraginaren zati bat erakusteko. Horretarako, euskara H₂ duten euskaltegiko ikasleen ahozko zein idatzizko laginen bidezko ikerketa esperimentalaren diseinua sortu dut. Baina ez hori bakarrik, diseinua sortu eta horren proba pilotua ere egin dut. Proiektuak *kalkoak* ditu oinarri, *kalko okerrak* hain justu, horiek izanik gaztelaniak euskaran duen eraginaren erakusle (Gartzia, 2005). Alabaina, onargarriak ez diren horien artean ugari direnez, morfosintaktikoen ikerketari baino ez diet heldu.

Ikerketa esperimentalak erakutsi nahi du euskara H₂ duten euskaltegiko ikasleek ahozko zein idatzizko ekoizpenetan kalkoak sortzen dituztela. Are zehatzago, proiektuak egiaztatu nahi du ekoizpen horietan ohikoak diren zenbait *kalko oker* agertuko direla. Halaber, *kalko okerrak* ikerketaren oinarria badira ere, gaztelaniak euskaran duen eragina hobeto erakusteko asmoz, ekoizpenetan aditzaren-aspektuaren joera ere aztertu egingo da.

Horrek guztiak testuingurua behar du ezinbestean; hortaz, lan honetan, hurrena, kalkoak definitu, sailkatu eta *okerrak* eta *ez hain okerrak* zeintzuk diren azaldu da.

Ondoren, proiektuaren helburuak ezagutarazi dira, hots, zer frogatu nahi izan dudan balizko ikerketaren bidez eta zer aurreikuspen espero dudan. Horri jarraituz, ikerketapilotua bera deskribatu da: laginen zein datu-analisiaren prozedura eta, kopuruz mugatuak izanik ere, jasotako emaitzak zein ondorioak. Horrela, ikerketak erakutsi du ikasle guztiek *kalko okerrak* sortu dituztela, gainera, idatzizkoan ahozkoan baino gehiago, eta, hortaz, aurrez prestatzeak ez duela imitazioa ekiditen. Halaber, ikasleen artean aukeratutako *kalko okerren* erdia errepikatu dituzte, ekoizpen batean zein bestean. Eta, aspektuak emaitza biribilik eman ez arren, aspektuaren erabilera nahasiranzko joera nabaria izan da, aspektu burutugabearen erabilera nagusia ez bada ere.

Ikerketa xume honetan lagin gutxi jaso izan arren, ahalik eta daturik gehien bildu eta interpretatu dira hasierako helburuak betetzeko asmoz. Eta bete dira. Agian, emaitzak ezin dira betikotzat jo, ikerketa sakonago baten beharra luketelako, baina artean, abiapuntu izandako kezka emaitza errealak dituen proiektu bihurtu da.

1. Hizkuntzen arteko ukipena

Munduan 7000 hizkuntza inguru daude, baina horietatik 250ek baino ez dute milioi bat hiztunetik gora, 60k baino ez 10 milioi hiztunetik gora eta 12 hizkuntzak¹ bakarrik dituzte 100 milioi hiztun baino gehiago². Halaber, jakina da munduan 200 bat estatu inguru daudela, hortaz, estatuetakoa hizkuntza ofizialez gain, badaude beste hainbat hizkuntza herri horietan. Beraz, munduko hizkuntzak ez daude isolatuta, ukipenean baizik. Hori dela-eta, lurralde berean hizkuntza-komunitate desberdinetako hiztunak bata bestearengandik isolatuta bizitzea pentsaezina da. Hau da, elkarren ondoan bizi diren taldeen artean elkarren arteko bi hizkuntzak ezagutzen dituzten hiztunak daude; beraz, hizkuntza horiek elebidun diren hiztunen bidez elkartu egiten dira (Coyos, 2005 *apud* Igartzabal, 2014).

Hizkuntzalaritzaren historian ikusi ahal izan da hizkuntza gehienek *ondoko hizkuntzen* eragina izan dutela era batera edo bestera, eta horrek barneko zein kanpoko forman ondorioak izan dituela (Juaristi 2015). Era horretan, «Ezein hizkuntzak erakuts dezake beste hizkuntza nahiz aldaera batzuekin izandako koexistentziaren arrastoa: hizkuntza “*puruak*” xaloki ez dira existitzen» Ikusi Juaristi (2015:6) eta bertan aipatutako Thomson, Kaufman eta Holmen lanak. Fenomeno horri hizkuntzen arteko ukipena deritzo, eta honela deskriba daiteke: «bi hizkuntza edo gehiago ukipenean daudela esaten da elebitasun -edo eleaniztasun- egoera dagoenean eta hiztun elebidun horiek harreman horren erdigunea osatzen dutenean» (Etxebarria, 2003 *apud* Juaristi, 2015:7). Argi dago, beraz, bi hizkuntzaren jabe izatea eta biak baliatzeak hiztunaren hitz egiteko moduan eragina duela (Coyos, 2005).

Ukipenaren dinamika honek askotariko fenomeno linguistikoak eragiten ditu, hots, aldaketa linguistiko itzelak. Eta aldaketok hizkuntzen unitate fonologiko, morfologiko, lexiko, sintaktiko zein semantikoetan ondorioak sortzen dituzte (Juaristi, 2015).


¹ Japoniera, indonesiera, txinera, arabiera, ingelesa, bengalera, espainiera, errusiera, india, frantsesa, portugesa, eta alemana.

² <https://lenguas.navarra.es/eu/munduko-hizkuntzak>

Ukipenaren definizioaz gain, baina, ezinbestekoa da bereziki eragiten dion oinarrizko faktore bati heltzea: hizkuntzaren estatusa. Ikerketa-lan honek ez du xede horretan sakontzea, luzerako emango bailuke; alabaina, ezin da alboratu ukipen-egoerak berez sortzen direla argudiatuta. Alegia, munduan milaka hizkuntza-komunitate daudela badakigu, eta horietariko askok eremu bera partekatzen dutela ere bai, hein batean zein bestean batak bestea ukituz eta alderantziz. Nolanahi ere, ukipen hori ez da berdina izango hizkuntza guztien kasuan, hots, batak besteari sortzen dion eraginaren *tamaina* desberdina izaten da bakoitzak duen *estatusaren* arabera (Gartzia, 2005). Egia da estatusean faktore askok parte hartzen dutela, esaterako, hiztun-kopurua, hizkuntza beraren onarpena edo prestigioa, hizkuntza-ohiturak nahiz erabilera, hizkuntza beraren egoera politiko-administratiboa... Ez dela gauza bera lurralde batean hizkuntza ofiziala izatea edo ez, ez eta ofizialtasuna zein edo zenbat eremu administratibotan ematen den ere, ez eta “ofizialtasun” hori egunerokoan nola bermatzen den ere... Munduan estaturik gabeko hizkuntza ugari daude, gehienak; eta horrek, jakina, zeharo baldintzatzen ditu hizkuntzok. Baina ez soilik hizkuntzak, hiztunek horien gainean duten ikuspegia ere baldintzatzen du: «Gizarte-egoera horrek isla garbia izango du banakako hiztunen buruan (aldi berean gizartezkoa eta norbanakoa baita hizkuntzen izaera), eta, hiztunok hizkuntza biotan elebidun diren kasuan, erlazio desoreka horren proiektzio moduko bat aurkituko dugu sarritan: hizkuntza nagusia sendo(ago) eta menderatua ahul(ago)» (Gartzia, 2005:14).

Euskararen kasuan, historian zehar hamaika hizkuntzarekin izan ditu hartu-emanak, iberiera, zeltera, latina, arabiera zein okzitanierarekin. Azken milurtekoan, Bidasoa ibaiaz goiti frantsesarekin dago ukipenean, eta Bidasoaz beheiti, ordea, gaztelarekin. Halere, globalizazioaren influentzia gero eta nagusiagoa da gurean, eta, horregatik, ingelesaren presentzia ere nabarmenagoa da, eta, jakina, horrek ere eragina du. Azken urteetan, gainera, historiako beste garai batzuetan bezala, Euskal Herrian hizkuntza aniztasuna ugaltzen ari da, eta euskaldunontzat oso arrunta da, beraz, arabiera, txinera, errumaniera... bezalako hizkuntzekin bizitzea. Gauzak horrela, euskara ere munduko beste hizkuntza asko bezala, ukipenean bizi da, eta gero eta euskaldun gehiago izan arren, hori baita estatistikek erakusten duten joera, erdaldun kopurua oso nabarmena da gurean:

1. grafikoa. 2 urteko eta gehiagoko biztanleak, lurraldeka, euskara-maila orokorraren arabera



Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika. 2016

1. irudia. EAEko euskaldunen datuen bilakaera-etaulak 1996-2016 artean Erkidegoan orotara eta lurraldez lurralde euskal hiztunen, ia euskaldunen eta erdaldunen kopuruen bilakaera erakusten du.

Estatusari dagokionez, oso desberdina da administrazio bakoitzean. Hegoaldean, EAEn (ko)-ofiziala da; Nafarroan, berriz, hiru eremu daude: iparraldekoa euskalduna - non euskara ofiziala den-, erdialdekoa mistoa eta hegoaldekoa ez euskalduna. Ipar Euskal Herrian aintzatetsi badute ere, euskara ez da hizkuntza ofiziala eremu bakar batean ere. Euskara, hortaz, hegoaldean gaztelaniarekin bizi da; eta iparraldean frantsesarekin. Hizkuntzaren egoera sozial nahiz administratiboak eragina du hizkuntzen arteko ukipenean, handia izan ere.

1.1. Ukipenak eragindako fenomenoak

Urrats bat aurrera egin behar dugu, eta horretarako ukipenaren gertakariak eragiten dituen zenbait fenomeno linguistiko³ aztertuko dira banan-banan:

1.1.1 Maileguak

Fenomeno linguistiko hau kanpoko elementu bat erabat edo osorik transferitzean datza, alegia, eredu-hizkuntzak kanpoko adierazle bat eta adierazi bat *inportatzea* (Gómez Capuz, 1998 *apud* UZEI, 2002). Izaera lexikoa duten unitate isolatuei eragiten die. A hizkuntzaren -hizkuntza hartzailearen- termino bat B hizkuntzan -eredu-

³ Zenbait ikerlarik zerrenda luzeagoa osatu duen arren, ikerlan honetarako ezinbestekoak direnak baino ez dira aztertu.

hizkuntza- txertatzen da, horrela, hartutako unitate lexiko hori zeharo integratuko da bere esanahiarekin zein formarekin. Mailegu lexiko bat erabat txertatzen denean hizkuntza batean, zenbait modutara egin dezake. Izan daiteke hizkuntza emailearen fonetiko eta morfologia mantentzea (1a). Gerta daiteke hizkuntza emailearen morfologiari heltzea, baina hizkuntza hartzailearen fonetikara egokitzea (1b). Halaber, beste aukera bat hizkuntza hartzailearen fonetika zein morfologiara egokitzea izan daiteke (1c) (Moreno, 1998 *apud* Juaristi, 2015).

(1)

- a. riz > arroz, marché > mercado
- b. lire > leer, vacances > vacaciones
- c. tichar > to teach “enseñar”, chainer > shine “brillar”

Nolanahi ere, zenbait autorek maileguen artean bereizketa batzuk proposatu dituzte. Batetik, Jolyk proposatutako bereizketa: «Hizkuntzarena, alegia, hizkuntza-komunitate osoak baliatzen duena; eta diskurtsoarena, hots, gizabanakoak erabiltzen duena» (Joly, 2014 *apud* Igartzabal, 2014:233). Bestetik, Vinagrek egindakoa, mailegua bestelako fenomeno linguistikoetatik bereiztea; hau da, mailegua bai kalkoetatik, bai kode alternantziatik⁴ bereiztea: «Maileguak ez du eskatzen bigarren hizkuntzaren aparteko komunikazio-gaitasunik, eta horrek mailegutza eta kode alternantziaren arteko aldea nabaria dela pentsatzera eraman gaitzake; halere, burututako ikerketa askok ondorioztatu dute zaila dela bien arteko mugak finkatzea (Vinagre, 2005 *apud* Igartzabal, 2014:233) .

1.1.2 Kode-alternantzia: *code-switching* edo *code-mixing*

Fenomeno hau berez hizketaldi berean bi hizkuntzako elementuak “nahastean” oinarritzen da. Ingelesez *code-switching* “kode-txandakatzea” edo *code-mixing* “kode-nahasketa” deitu izan zaio, alegia, txandakatzearen ala nahasketaren kontzeptuari, zeini garrantzi handiagoa eman nahi zaion (Ezeizabarrena 2015). Zenbait autorek, halere, argi bereizten dute bata eta bestea. Horrela, Juaristiren (2015) esanetan, code-mixing delakoa gertatzen da hiztun elebidun baten diskurtsoan beste hizkuntza baten elementuak ageri direnean. Beste era batera esanda, diskurtso berean hizkuntza desberdinetako perpaus

⁴ Kode alternantzia terminoa baliatzea erabaki dut eta ez kode aldaketa -autoreak baliatu bezala-beherago azaldutako arrazoiengatik eta lanean zehar terminoekin nahasketarik ez egoteko.

osoak elkarren ondoan jartzen direnean edo perpaus zatiak tartekatzean. Garcia Marcosek, ordea, code-switching-az honakoa dio: «Hiztun baten diskurtsoan hizkuntza bi edo gehiagoren erabilera txandakatu da» (Garcia Marcos, 1999 *apud* Juaristi, 2015:10). Beraz, lehenak *nahasketa* azpimarratzen du, bigarrenak, aldiz, *txandakatzea* .

Definizioan apur bat gehiago sakontzeko asmoz, eta aurretik aipatutako ideiak osatzeko asmoz, Rotaetxeren ustez, estrategia komunikatibo mota desberdin bi dira: code-switching-ak hizkuntza-unitateak eta bere arauak eramaten ditu beste kodera; code-mixing-ak, berriz, hizkuntza-unitateak eramaten ditu beste kodera araurik gabe (Rotaetxe, 1999 *apud* Manso 2014:8). Gehitu beharra dago kode alternantzia mota ugari daudela, ez bakarra, esaterako: hizketa-kideen artekoa, hizketa-txanda barruko esaldien artekoa, perpaus barruko osagai sintaktikoen artekoa, sintagma zein hitz barrukoa... Txandakatze horiek guztiak egiteko, baina, hiztunak ezagutza lexikoak, fonologikoak, gramatikalak nahiz pragmatikoak izan behar ditu. Batetik, bi hizkuntza horien arteko muga non ezarri behar duen jakiteko, eta, bestetik, handik aurrera esaldiaren jarraipenak zein izan behar duen argi izateko.

Azken ideia horri lotuta doa Poplacken araua. Bada, bere ustez, fenomeno hau gertatzeko eskuarki bi baldintza bete behar dira. Lehenik, kode-truke hori ezin da gertatu mendekoak diren morfemekin. Bigarrenik, kodeak ezin dira trukatu bi hizkuntzen egiturak baliokideak ez direnean, hau da, kode-alternantziak ezin du ezein hizkuntzaren arau sintaktikoak urratu. Hortaz, elementuen ordenak gramatikala izan behar du bi hizkuntzatan (Poplack, 1980 *Apud* Ibarra, 2014).

Amaitzeko, fenomeno linguistiko honek, euskarazko lanetan autorearen arabera izen desberdina jaso duela, hala nola: *ingelesezko izena bera*, *hizkuntza-lerraketa*, *kode-nahasketa*, *esaldi nahasiak ekoiztea* edota *kode alternantzia*. Lan honetan, nahasketak nahiz zenbaitek izen dezakeen konnotazioa saiheste aldera, *kode alternantzia* baliatu da.

1.1.3 Kalkoak

Kalkoaren fenomenoak berebiziko garrantzia du ikerlan honetan, lanaren oinarria da-eta. Hori dela-eta, nahitaezkoa da definizio sinpleenetik abiatzea: «hizkuntza batek beste baten eredutik berera egokitzen duen egiturari esaten zaio *kalko*» (Gartzia 2005:15). Alabaina, ez da definizio bakarra; bada, goazen apur bat gehiago osatzera eta biribiltzera: «Kalkoa kanpoko elementu bat “itzulpen bidez kopiatzea” eta “ordeztea” da; alegia, imitazioz eta hizkuntza hartzailearen adierazleak edo elementuak erabiliz, kanpoko hizkuntzaren elementu baten esanahia erreproduzitzea da» (Alberdi 2009:1-2). Azken definizioarekin, hortaz badirudi *egokitzapena*, *kopia* edo *ordezkapena* direla fenomenoaren giltza.

Definiziotik apur bat aldentuz, kalkoak beti izan du gaitzespen-konnotazioa (ikus 1.3 atala). Baina, hizkuntzen arteko koexistentziaren ondorio izateak, berez, ez du esan nahi kalkoa *txarra* denik edota fenomenoaz baztertu behar denik. Areago, kalkatzea baliabide zeharo emankorra da munduko edozein hizkuntzatan, eta neologien nahiz terminologiaren sorkuntzan erabili izan da eta erabiltzen da. Horrela, azken urteotan bere erabilera baliabide gisa nagusitzen ari da, eta terminologia berrirako bide egokia izan daiteke zuhur eta zuzen jokatzeko bada (UZEI, 2002 *apud* Alberdi, 2009).

Idea hori bera azpimarratu nahi izan du Alberdik (2009) bere lanean, hots, kalkoek gurean egun duten emankortasuna. Bada, euskaraz termino berriak sortzeko unean etengabe baliatzen da kalkoa -bereziki lexikoa, semantikoa nahiz fraseologikoa⁵-. Hori dela-eta, bere ustez, egungo euskaraz kalkoa neologia-mekanismo oso emankorra da, eta horretaz ohartzeko hiztegi orokor nahiz espezializatuak aztertzea besterik ez dago.

Kalkoen emankortasunaren harira, egun, zenbait adituk ikuspegi berria erakutsi dute. Euren ustez, kalkoak mailegutza-gertakarien parte dira, eta zenbaitek *itzulpen bidezko mailegutza* ditu: «Hizkuntza batek beste hizkuntza bateko hitza edo esamoldea itzuliz sortzen dituen unitate linguistikoak dira» (UZEI 2002:50).

⁵ Hurrengo atalean egoki azalduko dira horietako bakoitza.

Lan honen asmoa ez da ikuspegi horri kontra egitea, ez eta beste baten alde egitea ere; bai, ordea, adibide berriak azaldu eta aztertu ondoren terminoak egoki definitzea eta argitzea. Horregatik, ikuspegi berria gorabehera, garrantzitsua da mailegutza eta kalkoaren arteko aldea gogoratzea eta berau existitzen dela azpimarratzea: kalkoak kanpoko elementu bat *kopiatzen* edo *ordezten* du; maileguak, aldiz, kanpoko elementu bat *osorik transferitzen* du, adierazlea zein adierazia “*inportatzen*” ditu, beraz, egokitze fonologiko -eta morfologiko- handiago edo txikiagoarekin.

1.2 Kalko motak

Kalko motak edo tipoak askotarikoak dira, horrela, autore ugarik egindako sailkapenen artean aldeak ageri dira -batzuk orokorragoak, besteak zehatzagoak-. Lan honetarako sailkapen osoagoa aukeratu da, hain justu, Alberdik Sareko Euskal Gramatikan egindakoa (Alberdi, SEG). Hona hemen sailkapena:

- **Kalko semantikoa:** hitzaren esanahiaren mailan eragiten du. Eredu-hizkuntzaren “barne-forma” edo alderdi ez materiala, alegia, esanahia kopiatzen da. Bada, aldatu egiten da hizkuntza hartzaileak aurretik zuen hitz baten esanahia eta ez da hitz konposatu berririk sortzen. Hortaz, honako kalkoa homologoa da, hizkuntza hartzaile eta emailearen formaren arteko antzekotasuna kontzeptuala baino ez. Horren adibide ditugu gazteleratik euskarara iragandako (2a) eta (2b).

(2)

a. puente “jai-eguna” > zubi

b. estrella de cine > euskaraz zinema-izar

- **Kalko lexikoa**⁶: eredu-hizkuntzaren barne-forma edo barne-egitura xede-hizkuntzara itzultzea da. Bada, hizkuntza hartzaileak bere baliabide formalak erabiliz, eredu-hizkuntzaren hitz konplexu bat “berregiten” du. Horretarako, hitz horren egitura aztertu beharra dago, ondoren, bere osagaiak ordeztuko. Honako kalkoa egingarria izateko kanpoko ereduak bi baldintza bete behar ditu: batetik, morfema bat baino gehiago izatea edo zatitzeko moduko egitura; bestetik, esanahi deskriptiboa izatea, alegia, osagai horien batuketa eginez horiek

⁶ Tipologia honetan Alberdik azpi-sailkapena du, berau ikusteko: [http://www.ehu.es/seg/hizk/5/1/2/2?s\[\]=kalkoekin&s\[\]=kalkoak&s\[\]=kalko&s\[\]=kalkoa](http://www.ehu.es/seg/hizk/5/1/2/2?s[]=kalkoekin&s[]=kalkoak&s[]=kalko&s[]=kalkoa)

ondorioztatzeko moduko esangura izatea (Roberto Guzmán, 1983:8-11). Horren erakusle dira gaztelatik euskarara iragandako (3a) eta (3b).

(3)

a. ferrocarril > burdinbide

b. prever > aurreikusi

Tipologia honetan hibridoak ere aipatu beharra dago, hots, kalkatzea eta mailegatzea “inportatzea” batera gertatzen deneko fenomenoak, adibide gisa: *boxeolari, futbolari, gau-klub, eskaneatze...* (Gómez Capuz 2005: 42).

- **Kalko lexiko-sintaktikoa:** kalko honek berezitasun bat dauka. Soilik ematen da argumentu-egitura duten, eta, ondorioz, joskera jakin bat eskatzen duten hitzen kasuan. Kasu horietan, hitz horren semantikaz gain bere joskera ere kalkatu egiten da, eta, beraz, hiztegia eta joskera uztarturik ageri dira, adigarri gisa Hiztegi Batuaren (4a)

(4)

a. Hiztegi Batuaren eta literatura-tradizioaren arabera, *behatu* aditzari “begiratu” *dio* erregimena dagokio, baina gaurko prosan gaztelaniazko *observar*-en ordain gisa nahikoa hedatuta dago (*zerbait behatu (du)*) erabilera eta bestelakoak.

- **Kalko fraseologikoa:** hizkuntza bakoitzak berezko esapideak -hitz-multzo eginak, instituzionalizatuak eta semantikoki finkatuak- ditu, eta askotan ezin dira hitzez hitz itzuli hizkuntza batetik bestera. Horiek, hain justu (5a), (5b), (5c) eta (5d) dira.

(5)

a. lokuzioa (*ziria sartu*)

b. kolokazioa (*aldeko iritzi*)

c. hizketa-formula (*kontuak atera!*)

d. paremia (*Lan lasterra, lan alferra*)

Sarri, baina, horrelako formak hizkuntza batetik bestera kalkatu egiten dira, eta nolabaiteko egitura paralelistikoak sortzen dira, horiei, hain justu, kalko fraseologiko esaten zaie. Horietako asko *kalko okertzat* (ikus definizioa 1.4 atalean) (6a) edota (6b) hartzen badira ere, uste baino gehiago dira kalko fraseologiko onargarriak.

(6)

a. *⁷*eta abar luze bat* > eta abar

b *ilea hartu > adarra jo

Horren lekuko dira egungo hiztegi elebidunetan aurki ditzakegunak: *soldatak izoztu, (nor bait) poltsikoan izan, alderdiz aldatu...*

- **Kalko morfosintaktikoa:** morfosintaxiarekin lotuta dauden mota guztietako kalkoei esaten zaie. Horien artean (7a), (7b) eta (7c) daude.

(7)

a. izen-sintagmaren mailakoak

b. aditz-sintagmaren mailakoak

c. perpaus-mailakoak

Kalko tipo honetan antzekotasun funtzionalari erreparatzen zaio, era horretan, eredu-hizkuntzaren forma baten funtzioa hizkuntza hartzailearen formari eransten zaio. Beraz, kalko semantikoarekin bezala gertatzen da, alegia, “barne-forma” edo “esanahia” itzultzen da adierazle berririk sortu gabe. Honakoak ere gehienak *okerrak* (ikus definitiona 1.4 atalean) (8a) bezalakoak izaten dira, baina ez guztiak, (8b) esaterako.

(8)

a. *Bost urtez aritu zen Donostian irakasle bezala > Bost urtez aritu zen Donostian irakasle

b. Gaztelerazko *acerca de / sobre...* euskaraz *-en inguruan* postposizioaren bidez ematea *kalko onargarria* da

- **Kalko diskurtsiboa:** kalko hauen berezitasuna hiztegi nahiz gramatikaren maila gainditzea da. Hortaz, diskurtsoaren mailan kokatzen dira, baina hizkuntza batetik bestera aldatu egiten dira. Ohikoenak (9a) eta (9b) dira.

(9)

a. konexioaren mailakoak > testu antolatzaileak (*gainera*)

b. kohesioaren edo modalizazioaren mailakoak > anaforak (*izenordaina, erakuslea*)

Hauek ere okerrak izan ohi dira, baina egun batzuk nahiko hedatuta daude, adibidez: *bezalako* erabiltzea *hala nola* edo *esaterako* erabili beharrean.

⁷ * ikurra erabilera hori zuzena ez dela adierazteko baliatzen da gramatikan.

1.3 Kalkoen onargarritasuna: *kalko okerrak*

Kalkoa hizkuntzek, oro har, hitz zein termino berriak sortzeko duten baliabidea da. Alabaina, termino neutro eta deskriptibo hutsa izan arren, izugarrizko gaitzespen-kutsua hartu du, eta gutxitan aipatzen da lexiko-sorkuntzarako baliabideen artean; areago, «Berau aipatzekotan, errezelo, tentu eta erreserba askorekin egiten da neologiaren esparruan» (Alberdi 2009:3). Kalko hitza, berez, ez da gaitzespenezkoa, baina beste hitz batzuekin gertatu bezala (*kritika* hitzarekin, esaterako), txarrera hartzen da *kalko oker* zentzuan (Gartzia 2005). Kalko okerraren identifikazioarekin laguntzeko asmoz, Gartziak lanean azalduko kalko okerren irizpideen-taula txertatu da eranskinetan.

Ematen du gaitzespen kutsu hori beste hizkuntzaren *interferentzia* gertatzearekin lotzen dela, alegia, sistema batek bestea puntu jakin batean *ordezkatzearekin*. Eta arrazoi hori tarteko, badirudi beti jotzen dela oker, huts egitetzat nahiz nahastetzat. Haatik, ezin da ukatu interferentzia zein kalkoaren okertasun hori balioespina dela, eta, beraz, eztabaidagarria ere bai; kalkoa bera -okerra zein zuzena- kalkoa den bezain eztabaidagarri (Gartzia 2005). Auzia diakronikoa bada ere -garai batean kalkoa zena uneren batean *naturaldu* daiteke-eta-, oinarrian, hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna daude -egun *jatortasun* legez ezagutzen dena-, horiek baitira erabilera *ustelak* zein eta nola diren erabakitzen dutenak. Halere, aferaren erdigunean *tradizioa* dago; hizkuntzaren ezaguera sendoak zein arauak baitira *kalko okerra* ez egiteko bide bakarra. Finean, Gartziak adierazi bezala, ez da ezer ontzat emateko beldurrik izan behar, ez eta guztia okerra delako ideiarekin obsesionatu; erdara hutsaren zabarkeria arinaren eta erdarakaden paranoiari aurre egiteko muturreko zurruntasunera artean dago giltza (Gartzia 2005).

Bada, sarritan inongo premiarik izan gabe erdararen imitazioa jotzen da, sorburu-hizkuntzaren *esentziari* erreparatu gabe eta horrek sortzen ditu *kalko okerrak*. Ez da, hortaz, hizkuntza baten edo bestearen aldeko zein kontrako iritzi kontua, baizik eta imitazio horrek euskararen sistemari -kasuon euskara hori baita ikerketa hizkuntza, baina edozein izan daiteke-. laguntza baino kalte egiten diola, erdararen sistemarekin nahasten baita, eta, ondorioz, euskara bera autonomia zein baliagarritasuna galtzeko

bidean jartzen duela. Imitazio bakar batek, hots, *kalko oker* batek ez du sistema osoa botako, baina ugariak kolokan jartzen dute (Gartzia 2005).

2. Ikerketa-lana

2.1 Testuingurua

Hamaika urte igaro ditut euskararen irakaskuntzaren munduan, euskara ezagutzen ez dutenak euskalduntzen eta ezagun dutenak alfabetatzen. Irakasten ahalegindu naiz, baina bereziki gure hizkuntza erakusten saiatu naiz. Horrela, bere funtsa ezagutaraziz ikasle oro euskarara hurbiltzeko esfortzua egin dut: euskaraz eta euskaratik sortzeko, komunikatzeko. Lan polita da, alabaina, Euskal Herriko paraje erdaldun batean – Ezkerraldean, hain justu- aritzeak zailtzen du bidea, esfortzua biderkatu beharra dago-eta. Testuinguru horretatik eta, jakina, rol horretatik abiatu da nire kezka; ordenatu, forma eman eta proiektu bihurtu dudana kezka, finean. Nire egonezin hori, baina, ez da berria; seguru askok sentitu dutela, eta, areago, ziur naiz askok, nire antzera, forma eman diotela balizko irtenbide bat lortzeko asmoz. Halere, ezinegon bera izanda ere, norabide desberdinak hartzean dago giltza, helmugarako bide *zuzena* zein den idorotzeko asmoz.

Ezagun da euskararen munduan murgilduta bizi garenok hizkuntzaren etorkizunaren beldur garela, eta babestera jotzen dugula ezarian. Badakigu munduan hizkuntza guztiak bizi direla ukipen egoeran, euskara, hortaz, ez da salbuespena. Eta hori bera erakustea da, hain justu, lan honen helburu nagusia; alegia, premisa orokor horretatik abiatuta, erakutsi nahi dut gurean bizi dugun ukipenaren ondorioz, gaztelaniak euskararen eragina duela. Influentzia hori neurtzeko, baina, ukipenak berak sortutako faktore batez baliatuko naiz, kalkoaz, baina kalko ez onargarriez, hain zuzen. Beraz, asmoa hurrengo erakustea da: gaztelania H_1 eta euskara H_2 -jabekuntza-prozesuan- dauden hiztunek⁸ euren ekoizpenetan -ahozko zein idatzizkoak- *kalko okerrak* egiten dituztela; alegia, euskarak beharrik ez duenetan imitazioz –eta ez sorkuntzarako baliabide gisa- gaztelaniara jotzen dutela beren euskarazko ekoizpena osatzeko estrategia komunikatibo legez. Gaztelaniaren influentzia bestelako

⁸ Ez edozein hiztun, kasuon, nire ikasleak, eta, beraz, euskara ikasten ari direnak.

neurgailuekin -maileguak edota kode alternantzia- erakustea dago. Alabaina, gaztelaniaren eragin *kaltegarriaren* kezka frogatzea da jomuga, horretarako, lehen aipatutako eskarmentuan oinarritu naiz, eta azken urteotan lanean egunerokoan azalarazitako *kalko okerrak* oinarri hartu ditut ezagun eta intereseakoak ditudalako.

Nolanahi ere, hasieratik horrela aurreikusi ez arren, ikerketa-fasean egonda, ohartu nintzen ikerlan honek berebiziko lotura gordetzen zuela *Full Transfer and Full Access Hypothesis* (Schwartz eta Sprouse, 1994) delakoarekin. Eta, horretan sakontzeko asmorik ez badago ere -hipotesia bera ez baita ikergaia-, aztertutako ekoizpenak hipotesiarekin bat datozen ikusteko parada izango dugu. Hipotesi horrek bigarren hizkuntzen fenomeno asko azaltzen lagun dezakeelakoan nago, eta horren inguruko funtsezko bi baieztapen ditu. Batetik, H₂ren jabekuntza -hastapenean- hiztunak H₁-z duen gramatikaren jabekuntzaren bidez ematen dela, eta horri *full transfer* deritzo. Bada, prozesu horretan abiapuntua hiztunaren ama-hizkuntza da, eta irakaspen-prozesuaren hasieran parametro guztien balioak hortik transferitzen dira. Bidean hizkuntza-espereientzia haztearekin H₂ren ezagutza aldatuz doa. Bestetik, teoriak aurreko baieztapenari honakoa gehitzen dio: H₂ren jabekuntza-prozesuan hiztunak *Gramatika Unibertsalera* jo behar du jaso duen *input*-a H₁etik transferitu duen gramatika mentalarekin bateragarria ez bada. Eta horri, aldiz, *full access* esaten zaio. Era horretan, beharrezkoa bada, ikasleak H₁-ren parametroen balioak egokitu beharko ditu eginbidean (Schwartz & Sprouse, 1996 *apud* Dietrich & Schmidt, 2015).

Hortaz, maila xumeagoan bada ere, lan honek helburu nagusiek eta FT&FA hipotesiak gordetzen duten ondoz ondoko lotura erakusteko aukera eskaintzen du. Alegia, euskara H₂ ikasten ari diren ikasleek euren ekoizpenetan *kalko okerrak* sortzen dituztela frogatuz gero nahiz aspektuaren erabilera nahasiranzko joera agertuz gero, jabekuntza-prozesuan H₁era jotzen dutela berrestea.

3. Ikerlan-egitasmoa

Atalon ikerlanaren helburuak zeintzuk diren azalduko da, eta horiek lortzeko diseinaturiko bidea, alegia, parte-hartzaileak, materialak eta prozedura bera deskribatuko dira. Azkenik, egitasmoaren aurreikuspenak banan-banan agertuko dira.

3.1 Helburuak

Lan honek ikasleen ekoizpenetatik, nire kezka iturburu izen diren horietatik, abiatutako ikerketa bat bideratzea du xede, eta, horregatik, horienak -ahozko zein idatzizkoak- izango ditut aztergai eta ez beste ezein euskaldunenak. Ikertzailearen ikuspegia eta irakaslearen eskarmentua batzen dira ikerketa honetan, eta horrek aukera ematen du parte-hartzaileen ikuspegia ere nahikoa ondo ezagutu eta euren portaera aukerak aurreikusteko. Horratik, ekoizpen horiei forma emateko nire egunerokoari heldu diot. Pentsatu dut ikasleek normalean egiten dutena ikertu nahi dudala, eta horretarako eskolako giroko proposamena diseinatu dut. Komunikazio-egoera arrunt bat, ezagun dutena, haientzat erraza dena, eta garrantzitsuena, ezer susmatzeko pistarik gabea; ekoizpenetan naturaltasuna ahalik eta gehien bultzatzeko asmoz, ikasleei aurretiaz ez baitzaie ikerketari buruz ezer azalduko. Horregatik guztiagatik, narrazioa aukeratu da testu-genero legez.

Hortaz, nire euskaltegiko ikasleek sortuko dituzten ahozko zein idatzizko narrazioak aztertuko dira, eta, garrantzitsuena, jakina, horietan ageriko diren *kalko okerrak*. Eta horiek zeintzuk diren zehazteko marko teorikoan deskribatutako Alberdiren sailkapenean⁹ oinarritu naiz. Alberdiren ustez, honakoak dira *kalko okerrak*: batetik, **fraseologikoak** **ilea hartu*; bestetik, diskurtsiboak *soldatak izoztu*; eta, azkenik, morfosintaktikoak **egiten dugu afaria?*. Halere, horiek guztiak ikertzeak luzerako emango luke, eta arrazoi hori tarteko tipo bakarrari heldu diot, morfosintaktikoei. Egia da erabaki hori hartzeko nire egunerokoan oinarritu naizela, ezagunak izateak identifikazioa erraztuko duela uste baitut. Halaber, hain sarri entzuteak edo ikusteak erakargarritasuna zein interesa sortu dizkit, eta aspaldikoa da horiek ikertzeko nuen gogoia.

⁹ [http://www.ehu.es/seg/hizk/5/1/2/2?s\[\]=kalkoekin&s\[\]=kalkoak&s\[\]=kalko&s\[\]=kalkoa](http://www.ehu.es/seg/hizk/5/1/2/2?s[]=kalkoekin&s[]=kalkoak&s[]=kalko&s[]=kalkoa)

Alabaina, urrats bat aurrera egin behar dugu Alberdiren kalkoen sailkapena orokorra baita, eta, hortaz, berak ez ditu morfosintaktikoak zehaztu. Eta, jakina, ikerlan honetan hori egitea berebizikoa da horiek aztertuko direlako hiztunen ekoizpenetan. Beraz, Euskara Batuaren Eskuliburuaren sailkapena¹⁰ baliatu da horretarako, eta bertan (10a), (10b) eta (10c) motak ageri dira.

(10)

- a. izen-sintagmaren esparrukoak
- b. aditzaren esparrukoak
- c. perpausaren esparrukoak edo goragokoak

Halere, asko dira tipo bakoitzean ageri direnak, eta lehen aipatutako argudio bera baliatuz, horien artean nire eskarmentuak dagoeneko ezagun dituenak, eta, hortaz, hiztunek euren egunerokoan -inongo egoera komunikatibo berezia izanik- gehien ekoizten dituztenak aukeratu ditut. Honakoak, beraz, tipo bakoitzean ikerketarako aukeratutakoak:

1. Izen-sintagmaren esparrukoak

1.1 -a/bat (→ bat zenbatzailea / -a artikulua (batzuk/-ak))

➤ **?Haize bat altxa zen!** > **Egundoko haizea** altxa zen!

1.2 asko ≠ handia (→ asko ≠ handia; → izen zenbakarriak / izen zenbakaitzak;
→ -egi atzizkia)

➤ ***pazientzia asko, *lotsa asko** > pazientzia **handia**, lotsa **handia**

1.3 beste (→ beste (bestek / bestek / beste batzuek))

➤ **Beste etxera joan zen** (mugatua, ezaguna) ≠ **Beste etxe batera** joan zen.
(mugg., zehaztugabea)

1.4 elkar

➤ ***Elkar etorri dira** > **Elkarrekin** etorri dira.

2. Aditzaren esparrukoak

2.1 aspektua (egunerokotasun faltsua)

¹⁰ EBEren sailkapena osorik hurrengo loturan azter daiteke: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&task=pdf&Itemid=1161&atala=kalkoak

- **Aspertu naiz hemen. Joaten gara etxera?** > Aspertu naiz hemen.
Joango (al) gara etxera?

2.2 ahaleraren erabilera okerrak

- ***Hori egiten baduzu, aita haserretu daiteke** > Hori egiten baduzu,
litekeena da aita haserretzea / (...), aita haserretu egingo da beharbada.

2.3 baldintza-perpausetako komuntadura

- ***Saiatzen bada, lortuko luke** > Saiatzen bada, lortuko **du**

2.4 partizipioa atribuzio-perpasean (itxia(k)/itxita/itxirik)

- ***Zeharo mozkortutak zebiltzan** > Zeharo mozkortuta/**-rik/-ak**
zebiltzan.

3. Perpausaren esparruko edo gorakoak

3.1 erdal gerundioa

- ***Kolpe bat eman zion, hilda utziz** > Kolpe bat eman zion, **eta hil**

3.2. ere

- ***Ere daude beste kale batzuk** > Beste kale batzuk **ere badaude**

3.3 erlatiboak

- ***Etorriko zarenaren ustean gaude** > Etorriko **zaren/zarelako ustean**
gaude.

3.4 zehar-galdera

- ***Konturatu behar genuke (zer) galtzen ari garenaz** > Konturatu behar
genuke **zer** ari garen **galtzen**.

Nolanahi ere, une batean ohartu nintzen Euskara Batuaren Eskuliburuaren zerrendan aspektuarekin lotutako kalkoak soilik egiten ziola erreferentzia egunerokotasun faltsuari, eta ez aspektuaren inguruan dauden bestelako erabilera okerrei. Horrela, aukeratutako ekoizpena narrazioa izanik, eta jakina izanik aspektuak narrazioetan duen pisua -kontaketa guztiak ekintzez beteak egoten baitira- apur bat eskasa zela pentsatu nuen, eta, halaber, narrazioetan egunerokotasun faltsua ikustea zaila izango zela. Hortaz, alderdi honetan apur bat sakontzea erabaki nuen ikerketa aspektuaren arloan erren gera ez zedin. Horregatik, erabaki nuen aztertzea kontakizunetan zer gertatzen den aspektuarekin. Eta, antza, kontakizunei dagokionean, berez ez dago aspektuaren erabilera okerrik, hots, *kalko okerrik*. Izan ere,

Euskaltzaindiak arautu gabeko kontua bada ere, literaturak erakutsi du bi molde erabili izan direla, eta egun, beraz, biak egokitzen hartzen direla: batetik, (11a), eta bestetik, (11b)

(11)

a. Gertakizuna momentuan bertan gertatzen ari balitz bezala kontatzea, **orainaldi narratiboan**, hots, **aspektu burutugabea**: *Ateratzen da, hartzen du zakua bizkarrean eta hor joaten da...* Honakoa ez da “orainaldi historikoarekin” nahasi behar: *1955ean jaiotzen da > jaio zen edo jaioa da.

b. Gertaerak jadanik pasatu izan balira bezala kontatzea, **aspektu burutuana**: *Atera da, hartu du zakua bizkarrean eta hor joan da (doa)...*¹¹ (EBE, 2018).

Ezin ahantz daiteke betiere abiapuntu berera jotzen dudala, alegia, nire eskarmentura. Eta, kasuon, esan behar dut ikasleek batetik bestera jauziak egiteko ohitura erakusten dutela, eta, hortaz, esan daiteke bi molde horiek nahasten dituztela. Alegia, biak zilegi badira ere, kontaketa berean biak nahasteak erakusten du erabilerak ez daudela argi. Horrela, lanaren asmoari jarraituz, bi molde horien nahasketa gaztelaniaren eraginak sorturikoa dela erakutsi nahi dut. Areago, bi erabilera horien artean, ikasleek aspektu burutugabea jotzeko ohitura erakusten dute. Goazen ikustera gaztelarak (12a) eta euskarak (12b) zer ematen duten.

(12)

a. *El principe se come/se comió a la princesa*

b. *Printzeak printzesa jan du/zuen -burutua- edota jaten du/zuen -burutugabea-* Gaztelaniaren aspektuari erreparatzen badiogu, *se* delakoari, eta premiarik gabeko imitazioa jotzen badugu, euskararen jatorrizko erabilerari erreparatu gabe, *se* horrek aspektu burutugabea erabiltzera garamatza. Alegia, honakoa ere gaztelaniaren eraginaren arrastotzat har daitekeenez, ikasleen kontaktetan ageri diren aditzen aspektu burutuak eta burutugabeak ere aztertuko dira hori bera erakusteko.

¹¹ Azalpena bere osotasunean adibide eta guzti honako loturan ikus daiteke: www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&task=bilaketa&view=bilaketa&Itemid=1161&lang=eu-ES&query=aditzaren+aspektua+&mota=

3.2 Diseinua

➤ 3.2.1 Parte-hartzaileak

Ikerketaren diseinu bezala, euskaltegian ditudan ikasle guztiak baliatuko ditut, jakina, euren oniritziarekin. Horretarako ekoizpenak jaso ondoren, eta laginen ikerketarekin hasi baino lehen, ikasle guztiek euren laginak erabiltzea baimentzen duen ziurtagiria sinatuko dute. Ikasleren batek parte hartu nahi ez badu, ez da inongo arazorik izango, bere ekoizpenak ez dira ikerketan baliatuko. Ikasleak ez dira ezein faktorerengatik bereiziko: ez adinagatik, ez ezagutza-mailagatik, ez euskaltegian, eskolan zein familian euskaldundu izanagatik, ez eta euskalduntze edo alfabetatze-mailan egoteagatik¹² ere. Mailaren arabera taldekatuta ikasten dute, kasuon, B2 mailako ikasle-talde bat eta C1 mailako bi ikasle-talde.

➤ 3.2.2 Materialak

Ikasleek idatzizko zein ahozko narrazio bana sortuko dute, eta lehen aipatutako arrazoiei helduz -naturaltasuna, erraztasuna eta ezaguna izatea- bineta edo komiki labur bat erabiliko da. Ariketok ez dira solte egingo inongo loturarik edota logikarik gabe. Narrazioa lantzea helburu duen ataza baten parte izango dira. Eta atazak bigarren helburu bat ere izango du: istorio tradizionalak zer nolako eragina sortzen duten aztertzea eta tradizio hori haustea nola jasotzen dugun. Beraz, ariketa nagusia “Neska eta igela” (J.Babb) bezala izendatu eta eranskinetan aurki daitekeen istorio laburra idatziz zein ahoz ekoiztea izango da, eta bietarako istorio bera baliatuko da. Ikasleei paperean emango zaie komiki laburra. Halaber, hori ariketa nagusia izan arren, taldeka bestelako istorio batzuk, ere landuko dira, galdetegi baten laguntzaz ahoz komentatu edota eztabaidatuko direnak. Horiek ere paperean emango zaizkie. Eta, amaitzeko, istorio nagusiaren ahozko ekoizpena egiteko eskuko grabagailuaren *Olympus VN-702PC* modeloa erabiliko da.

➤ 3.2.3 Prozedura

Ikasleek astebetean atazan proposatutako ariketak egingo dituzte: eguneroko taldean 5 egunetan zehar egingo dute egunean 2 ordu egiten dituztelako eta gauzak

¹² Ikasle batzuk euskararen jabe dira, eta berau zuzendu zein hobetu beharra dute, hots, alfabetatu; beste batzuek, aldiz, euskaraz jabetu behar dute, ezer ez edo ezer gutxi dakite eta gehiago jakin behar dute, hau da, euskaldundu. Bien arteko nahasketa behar izatea ere posible da.

egiteko patxada behar dutelako; eta astean bi eguneko taldeetan bi egunetan, horietan bi ordu eta erdi egiten dutelako eta euren erritmoa arinagoa delako. Ariketak honako hurrenkeran egingo dituzte:

1. Konpletiboa eta zehar estiloaren erreparorako azalpen eta ariketak narrazioa eta berkontaketari egoki aurre egiteko.
2. Binetaren idatzizko ekoizpena.
3. Binetako istorioari buruzko iritzia ahoz eman: zer du berezi, desberdin? Zerk eman dizue atentzioa?
4. Istorio horren kontaketa bat entzun, eredu gisa hartzeko.
5. Banaka istorio beraren ahozko kontaketa, nork berea. Grabaketak egin artean, ikasleak, taldetan banatuta, istorio berezi batzuen inguruan mintzatuko dira eta iritzia emango dute.

Bi ariketa proposatuko zaizkie hurrenkera berean guztientzat aste berean: idatzizkoa aurrena, eta bi egun geroago ahozkoa. Hurrenkera horretan jasoko dira laginak. Halaber, ikasleei ekoizpenak egin baino lehen honako kontsignak emango zaizkie:

- Idatzizkoaren kontsigna

- Komiki laburrean ageri den istorioa idatziz kontatu behar duzue.
- Nork bere modura egingo du, inoren laguntzarik edo ezelako eredurik gabe.
- Narrazioa denez, kontuan izan testu-generoari dagozkion ezaugarriak.
- Saiatu behar duzue gutxienez 100 hitz idazten.
- Ez dago denbora mugarik, hartu egitekoa lasai.
- Eskolako ariketa arrunta da, ez da ebaluaziorako ezer.

- Ahozkoaren kontsigna

- Istorioaren kontaketa bat entzungo duzue, birritan. Entzun baino ez duzue egin behar.
- Nork bere kontaketa ahoz egingo du grabagailua erabiliz.
- Ez duzue aurretiaz ezer prestatuko, bat-batekoan egingo duzue.
- Banan-banan egingo duzue, beste gela batean, bakar-bakarrik, eta zuok grabatuko duzue.
- Ez dago denbora mugarik, baina saiatu sikiera minutu batera heltzen.

Hori guzti hori egiteko ez da bestelako irakasle-laguntzailerik izango, ni bakarrik arituko naiz haiekin egunerokoaren normaltasunari heltzeko eta ikasleek susmorik ez izateko. Idatzizko ekoizpenak, beraz, betiko gelan egingo dira, ikasle guztiak elkarrekin egonda eta ni aurrean egonda. Ahozko ekoizpenetarako, ordea, bi gela baliatuko dira; betiko gela, bertan ni egongo naiz taldeetan lanean egongo diren ikasleekin, eta, ondoko gela, non banaka ikasleek euren ahozkoak grabatuko dituzten. Gerta daiteke ikasleren batek bietako bat egin nahi ez izatea, horrela izatekotan, egin duen lagin bakarra jasoko litzateke asmoa ez baita inor behartzea. Ariketok amaitutakoan, orduan ikasleei azalduko zaie ariketen azpiko helburua, eta euren laginak erabiltzeko baimena eskatuta, berau onartuz gero, ziurtagiria sinatuko dute.

3.3 Lanaren aurreikuspenak

Ikerketa-fasearekin hasi baino lehen, ezinbestekoa da azaltzea aurreikusi ditudan hipotesiak eta usteak edo susmoak. Jakina, horiek guztiak zehazteko proiektuaren abiapuntura jo da, nire eskarmentura, alegia. Honakoak, hortaz, espero ditudanak:

-Hipotesi nagusia: Euskaltegiko ikasle guztiek euskarazko ekoizpenetan *kalko okerrak* egiten dituzte euskarak beharrik ez duenetan, imitazioz gaztelaniara jotzen baitute (Gartzia, 2005).

- **1. aurreikuspena:** Ikasle guztiek bi ekoizpenetan, bai idatzizkoan bai ahozkoan, *kalko okerren* bat¹³ sortuko dute.
- **2. aurreikuspena:** Ikasle bakoitzak minimo kalko bana sortuko du ekoizpen bakoitzean.
- **3. aurreikuspena:** Ikasle guztiek ez dituzte *kalko oker* bertsuak egingo, baina batzuk zenbait ikasleren ekoizpenetan -dela idatzizkoa, dela ahozkoa- errepikatuko dira.

-Bigarren hipotesia: Ariketa errepikatzeak -aurretiaz prestatzeko aukera izateak- automatizazioa errazten du. Hartara idatzizko ariketan euskaraz aritzeko baldintza hobe edo errazagoetan aritzen dira ikasleak.

¹³ Gogoratu beharra dago morfologikoak baino ez direla ikertuko, eta horien artean usuenak aukeratu direla. Metodologiaren atalean azaldu da kalko morfologiko usuenen bahea.

- 1. aurreikuspena: Ikasle guztiek idatzizko ekoizpenetan ahozkoan baino *kalko oker* gutxiago sortuko dute.
- 2. aurreikuspena: Ikasle guztiek ahozko ekoizpenetan idatzizkoan baino *kalko oker* gehiago sortuko dute.

-Hirugarren hipotesia: Narrazioen ezaugarria da aditzaren aspektua. Kontakizunetan bi molde -orainaldi narratiboa, burutugabea, *hartzen du* edo aspektu burutua *hartu du*-zilegi dira.

- 1. aurreikuspena: ikasleek euren kontakizunetan -idatzizko zein ahozkoetan- aspektu burutua zein burutugabea baliatuko dituzte nahasian.
- 2. aurreikuspena: ikasleek ekoizpen berean -batean zein bestean- biak baliatzen dituztenean, aspektu burutugaberanzko joera erakutsiko dute.

Hiru hipotesi horiek FT&FA hipotesiarekin, eta zehatzago *full transfer* delako baieztapenarekin, gordetzen duten lotura ikusteko aukera izango dugu; alegia, ikasleek euren euskal ekoizpenetan gaztelaniara jotzeak -dela kalko okerrak eginez, dela kontakizunetan aspektu-moldeak nahastuz edota burutugaberanzko joera erakutsiz- jabekuntza-prozesu hori H_1 -z -kasuon gaztelaniaz- duten gramatikaren jabekuntzaren bidez egiten dutela ikusteko aukera.

4. Ikerketa pilotua

4.1. Metodologia

Ikerketa-lanaren diseinuan aurreikusita zegoen hiru talderen laginak jaso eta aztertzea. Alabaina, bidean osasun-arazoak agertu, eta baja hartu behar izan dut. Horratik, laginak jasotzeko prozesua bertan behera utzi behar izan nuen, eta ordura arte jasota nuenarekin, alegia, talde bakarraren laginekin, aurrera egin. Arrazoi horiek guztiak tarteko oraingo lan hau *ikerketa pilotutzat* hartu dut. Jarraian hurrenez hurren azalduko dira ikerketa pilotuaren zehaztapen guztiak, halaber, jarraitutako urratsak osoki deskribatuko dira.

4.1.1. Laginak

➤ 4.1.1.1 Parte-hartzaileak

Aztertutako laginak Xaribari euskaltegiko B2 mailako nire ikasle-taldearenak dira. 13 ikaslek osatzen dute talde hori, denak izanik Portugaleteko biztanleak. Esan beharra dago 13 izan arren, laginak jaso ziren egunetan ez zeudela guztiak klasean, ohi bezala, eta, horregatik, lagin gutxiago aztertu dira, idatzizko 10 ekoizpen eta ahozko 8 ekoizpen, hain zuzen. Oso talde jatorra da, oso ongi moldatzen gara elkarren artean eta hori nabaria da. 25- 70 urte arteko adin tartea dute eta askotariko lan-egoerak dituzte: batzuk ikasleak dira, beste batzuk langileak, erretiraturen bat dago edo langabezia bada baten bat. Guztiek partekatzen dute gaztelania ama-hizkuntza gisa -gaztelania H₁- eta euskara bigarren hizkuntza legez -euskara H₂. nahiz eta ikasle batzuek, Katalanera, ingelesa nahiz frantsesa jakin eta erabili. Gehienak euskaltegian euskaldundu dira nagusitan, eta bi baino ez dira eskolan euskaldundu, kasuon, gazteenak. Eskolan euskaraz jabetu direnek hizkuntza barneratuago dutela pentsa daiteke errazago komunikatzen baitira ahoz zein idatziz; artean, baina, gramatikako kontu guztiei oso kostata egiten diete aurre, euskaltegian ikasitakoek ez bezala. Haatik, ikerlan honetan ez da horren inguruko baieztapenik egingo horretan sakondu eta ikertu gabe. Taldean ez dago helburu bakarra, nor berea baitu: mintzamina hobetu, gramatika findu, idazmenean aurrera egin, azterketa ofiziala gainditu, ilobekin euskaraz bizi... Hein batean zein bestean guztiek euskaldundu eta alfabetatu behar dute, hots, euskara gehiago ezagutu gehiagotan erabiltzeko. Euskaltegitik kanpo gutxi- 3 bat- erabiltzen dute euskara egunerokoan, eta gainerakoan saiatzen dira jarduera batzuetan sikiera euskaraz mintzatzen¹⁴.

➤ 4.1.1.2 Prozedura eta materiala

Lanaren metodologian argitu bezala, narrazio labur baten, “*Neska eta igela*” komiki laburraren, idatzizko zein ahozko ekoizpenak burutu ziren martxoak 7-11ko astean honetarako espresuki prestatutako programazio baten baitan. Metodologian azaldutako hurrenkera errespetatu zen, eta, horrela, idatzizko ekoizpena 9an,

¹⁴Taldea bera deskribatu den arren, ikasle bakoitzaren egoerak ez dira aintzat hartu ikerketa diseinatzeko. Bada, aurretik azaldu bezala, ez da bereizketarik egin ikasleen artean, euren ekoizpenak aztertu besterik ez. Beraz, garrantzitsua da guztiek abiapuntu bera dutela: gaztelania H₁ eta euskara H₂ dute, euskaltegian euskara ikasten ari dira talde berean, eta helburu maila bera dute, hots, B2.

asteazkenean, egin zen; eta ahozkoa, aldiz, 11n, ostiralean. Idatzizkoa egin zen egunean hiru ikasle falta ziren, horratik, ez zen horien idatziko laginik jaso. Ahozkoa egin zen egunean, ordea, bi, eta horrez gain, gelako batzuek ez zuten ahozkoaren grabazioa egin nahi izan grabagailuaren presioa zela-eta. Ondorioz, idatzizko 10 lagin eta ahozko 8 lagin jaso ziren. Orotara, 7 ikasleren lagin biak lortu ziren, 3ren kasuan soilik idatzizkoak eta baten kasuan ahozkoa baino ez. Taldeko bi ikasleren kasuan, ez zen inongo ekoizpenik lortu.

Idatzizkoa ekoizteko metodologian adierazitako prozedurari jarraitu zitzaion inongo aldaketarik gabe. Ikasleek amaitu ahala laginak jaso ziren; ondoren, batera eskaneatu eta pdf dokumentu batean gorde. Ahozkoarekin gauza bera gertatu zen, egokitzapen bakarra, ordea, ikasleen errebolta txikia izan zen. Amaitutakoan ekoizpenak grabagailutik atera, izendatu eta gorde ziren. Esan beharra dago laginak eta, hortaz, ikasleak hizkien bidez izendatu direla, ekoizpenak ahalik eta objektiboen izateko. Azken batean, ikerlan honetan laginen egiletasunak ez du inongo balorerik, ikasleek egiten dutena baita garrantzizkoena ez nork egiten duen.

4.1.2. Datuen analisisa eta bilketa

➤ 4.1.2.1 Idatzizkoa

Jasotako idatzizko 10 laginak¹⁵ 100-120 hitz artekoak dira, eta esan beharra dago kontaketa guztiak ez direla modu berean egin. Alegia, kasuren batean narrazioaz gain, elkarrizketa zatiak ere ageri dira, edota besteren batek amets baten simulazioa egin du. Kontaketa hori egiteko, baina, ez zaie exijitu modu zehatz bat, horratik, ez du inongo arazorik eragin, kontrara, askotariko bideak azaltzea aberasgarritzat har daiteke. Laginok banan-banan aztertu eta metodologian azaldutako EBE¹⁶ren sailkapenetik aukeraturiko 12 *kalko oker* horien bila jo da:

1. Izen-sintagmaren esparrukoak

1.1 -a/bat

1.2 asko \neq handia

1.3 beste

1.4 elkar

¹⁵ Laginak eranskinetan osorik txertatu dira.

¹⁶ Euskara Batuaren Eskuliburua.

2. Aditzaren esparrukoak

2.1 aspektua (egunerokotasun faltsua)

2.2 ahaleraren erabilera okerrak

2.3 baldintza-perpausetako komuntadura

2.4 partizipioa atribuzio-perpauetan (itxia(k)/itxita/itxirik)

3. Perpausaren esparruko edo gorakoak

3.1 erdal gerundioa

3.2. ere

3.3 erlatiboak

3.4 zehar-galdera

Ikasle bakoitzaren laginean adibideak agertu ahala, erauzi eta taula batera pasa dira. Adibide horiek, baina, taulan koloretan desberdinu dira tipoaren arabera. Horrela, moreak izen-mailakoak dira, berdeak aditz-mailakoak eta laranja perpaus mailakoak edo goragokoak. Halaber, kontaktetan aditzaren aspektua aztertu da, eta zilegi diren bi molde horien bila jo da. Era horretan, aspektu burutu edo burutugabeen adibideak identifikatu, kuantifikatu eta aurreko datuekin batera taulara ere pasatu dira.

| IKASLEAK | KALKO OKERREN ADIBIDEAK | ADITZAREN ASPEKTUA KONTAKIZUNETAN KOPURUA |
|-----------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------|
| A ikaslea | 1. adib: <i>Goiz ikusi zuen igel lodi bat koroarekin.</i> 2. adib: <i>Printzea izan ahal litzateke?</i> 3. adib: <i>Musu bat emango zenidake?</i> 4. adib: <i>... musu bat eman zion...</i> 5. adib: <i>... bihurtu zen hartz handi eta lodi bat.</i> 6. adib: <i>... atzaparkada batekin hil zuen...</i> | Guztiak aspektu burutua: 19 adibide. |
| B ikaslea | 1. adib: <i>... igel bat topatu zuen koroa batekin.</i> 2. adib: <i>... printze batean bihurtzen dela.</i> 3. adib: <i>... musu bat eman zion.</i> 4. adib: <i>... igela hartz batean bihurtu zen.</i> 5. adib: <i>Neska oso ikaratuta zegoen eta hartzari zergatik haserre zegoela galdetu zion.</i> | Guztiak aspektu burutua: 10 adibide. |
| C ikaslea | 1. adib: <i>... abiatu zen harri polit eta eroso bilatzen.</i> 2. adib: <i>... heltzean ikusi zuen igel korona batekin.</i> 3. adib: <i>Printzesa bere aburuz pentsatu zuen printze polit bat izango litzatekeela...</i> 4. adib: <i>...printze polit bat izango litzatekeela...</i> 5. adib: <i>... horregatik musu bat eman zion.</i> | Guztiak aspektu burutua: 11 adibide. |

| | | |
|------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| D ikaslea | <p>1. adib: <i>Neska bat... oso lasaia egoten da...</i></p> <p>2. adib: <i>... neska pentsatzen du printze bat dela.</i></p> <p>3. adib: <i>Igela koro bat ipinita dauka...</i></p> <p>4. adib: <i>... musu bat eman dio...</i></p> <p>5. adib: <i>... igela hartz handi bat bihurtu da.</i></p> | <p>Nahasketa:</p> <p>-aspektu burutua: 7 adibide.</p> <p>-aspektu burutugabea: 3 adibide.</p> |
| E ikaslea | <p>1. adib: <i>... igelak korona txiki bat zeukan bere buruan.</i></p> <p>2. adib: <i>... printzesak pentsatu zuen sorginkeriak igel bihurtutako printze bat zela.</i></p> <p>3. adib: <i>... musu bat igelari eman zion...</i></p> <p>4. adib: <i>... ez zen gertatu nola pentsatzen zuen...</i></p> <p>5. adib: <i>... ez zen gertatu nola pentsatzen zuen, igela hartz handi bihurtzen...</i></p> | <p>Nahasketa:</p> <p>-aspektu burutua 5 adibide.</p> <p>-aspektu burutugabea 2 adibide.</p> |
| F ikaslea | <p>1. adib: <i>... printze bihurtzeko musu bat eman behar ziola.</i></p> <p>2. adib: <i>Ipuinak, eleberriak edo beste irakurketak izugarri onak dira...</i></p> | <p>Guztiak aspektu burutua: 5 adibide.</p> |
| G ikaslea | <p>1. adib: <i>Printzesa igela ikustean, printze bat zela pentsatu zuen...</i></p> <p>2. adib: <i>... musu ematen banion, printze eder bat bihurtuko zen.</i></p> | <p>Guztiak aspektu burutua: 5 adibide.</p> |
| H ikaslea | <p>1. adib: <i>... soilik musu batekin printze bihurtuko zela.</i></p> <p>2. adib: <i>Hartza bere gainean zegoen, bera konturatu gabe, bere burua janez.</i></p> | <p>Guztiak aspektu burutua: 11 adibide.</p> |
| I ikaslea | <p>1. adib: <i>... beharbada printz bat da...</i></p> <p>2. adib: <i>... eta musu bat ematen badit...</i></p> <p>3. adib: <i>... igelari musu bat eman zion...</i></p> | <p>Guztiak aspektu burutua: 9 adibide.</p> |
| J ikaslea | <p>1. adib: Gero, neska honek pentsatzen zuen apoa printze bat zela...</p> <p>2. adib: <i>... apoa printze bat zela...</i></p> <p>3. adib: <i>...musu bat eman zion ...</i></p> <p>4. adib: <i>... musu honekin arazo guztiak konponduko zizaion printze bihurtuko zela pentsatzen.</i></p> | <p>Guztiak aspektu burutua: 5 adibide.</p> |
| K ikaslea | <p>Ikasle honek ez du idatzizko ekoizpenik egin.</p> | <p>Ikasle honek ez du idatzizko ekoizpenik egin.</p> |

2. irudia. Idatzizko laginen adibideen taula.

➤ 4.1.2.2 Ahozkoa

Kasuon jasotako 8 laginek 1'7"-2'19" arteko luzera dute. Oraingoan ere, kontraera-modu askotarikoak daude: batzuek euren burua aurkeztu dute, beste batzuek benetako kontaktaren adierazpena egin dute... Ekoizpenak banan-banan transkribatu dira, ikasleek kontatu bezala jaso dira inongo aldaketarik egin gabe. Hortaz, euskararen ortografiari helduz, transkripzio fonologikoak¹⁷egin dira. Ondoren, transkripzio horretatik idatzizkoetan bezala, aukeraturiko 12 *kalko oker* horiek identifikatu dira eta

¹⁷ Transkripzioak eranskinetan osorik txertatu dira.

taula batera pasa dira, eta oraingoan ere koloreen bidez desberdindu dira. Gauza bera egin da aditz-aspektuarekin; bi molde horiek identifikatu, zenbatu eta gainerako datuekin batera taulan txertatu dira.


| IKASLEAK | KALKO OKERREN ADIBIDEAK | ADITZAREN ASPEKTUA KONTAKIZUNETAN KOPURUA |
|----------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Ikasle A | <p>1. adib: <i>Musu bat emango bazenit...</i> 2. adib: <i>Musu bat emango bazenit, printzea bihurtuko naiz.</i> 3. adib: <i>...eta musu bat eman zion...</i> 4. adib: <i>igela hartz erraldoi eta lodi bat bilakatu zen.</i></p> | Guztiak aspektu burutua: 10 adibide. |
| Ikasle B | <p>1. adib: <i>bazen behin e... neska bat e... liburuak asko gustatzen zitzaiona...</i> 2. adib: <i>Igela e... koroa... koro bat e... zeukan...</i> 3. adib: <i>...musu bat ematen bazion ...</i> 4. adib: <i>...musu bat eman zion.</i> 5. adib: <i>... hartz batean bihurtu zen.</i> 6. adib: <i>Hartza oso haserretuta zegoen...</i></p> | Guztiak aspektu burutua: 8 adibide. |
| Ikasle C | <p>1. adib: <i>... neska bikote bat aurkitu nahi zuen.</i> 2. adib: <i>... konturatu zuen e... korona bat zeukala igela...</i> 3. adib: <i>...musu bat bota zuen...</i> 4. adib: <i>Hartza e... oso handia zegoenez...</i></p> | Guztiak aspektu burutua: 10 adibide. |
| Ikasle D | <p>1. adib: <i>E... egun batean e... neska bat e... basoan egoten dira...</i> 2. adib: <i>neska hau oso lasai egoten zen...</i> 3. adib: <i>...musu bat e... ematen du igelari...</i> 4. adib: <i>momentuz geratzen zen e... pues ikusten...</i></p> | <p>Nahasketa: -aspektu burutua: 2 adibide. -aspektu burutugabea: 13 adibide.</p> |
| Ikasle E | <p>1. adib: <i>... igelak korona bat e... korona txiki bat zeukan...</i> 2. adib: <i>... musu bat igelari eman zion...</i></p> | <p>Nahasketa: -aspektu burutua: 4 adibide. -aspektu burutugabea: 3 adibide.</p> |
| Ikasle F | Ikasle honek ez du ahozko ekoizpenik egin. | Ikasle honek ez du ahozko ekoizpenik egin. |
| Ikasle G | <p>1. adib: <i>... printze bat ze... printze bat zela pentsatu zuen...</i> 2. adib: <i>...musu bat ematen banion ...</i> 3. adib: <i>... zergatik nahi zen printze bat...</i> 4. adib: <i>... zergatik nahi zenuke printzes batekin egon?</i></p> | Guztiak aspektu burutua: 5 adibide. |
| Ikasle H | <p>1. adib: <i>Kaixo neska, ni printzipe bat naiz!</i> 2. adib: <i>Azkenean erabaki zuen neskak musu bat eman.</i></p> | Guztiak aspektu burutua: 12 adibide. |
| Ikasle I | Ikasle honek ez du ahozko ekoizpenik egin. | Ikasle honek ez du ahozko ekoizpenik egin. |
| Ikasle J | Ikasle honek ez du ahozko ekoizpenik egin. | Ikasle honek ez du ahozko ekoizpenik egin. |
| Ikasle K | <p>1. adib: <i>... baserri batean bizten da.</i> 2. adib: <i>Asko gustatzen zaio printzeseko istorioak.</i> 3. adib: <i>Agian printzese... printzes bat da!</i> 4. adib: <i>... musu bat eman zion.</i> 5. adib: <i>... igela ez zen bihurtu printz... bihurtu zen printze batean.</i> 6. adib: <i>Hortz handi bat eta oso goisi baizik.</i> 7. adib: <i>... hau da nire istorioa oso polit bat.</i></p> | <p>Nahasketa: -aspektu burutua: 8 adibide -aspektu burutugabea: adibide 1</p> |

18

¹⁸ Esan beharra dago aspektuaren *kalko okertzat* – EBeren sailkapenean soilik egunerokotasun faltsua agertu arren, -(z)en forma burutugabearen erabilera puntukaria ere hartu dela *kalko okertzat*, esaterako:

4.1.3. Emaidzak

Atal honetan bildutako datuen emaitza kuantitatibo zein kualitatiboak azalduko dira. Horretarako zenbait grafiko baliatuko dira, datuak eta azalpenak argitzeko asmoz. Emaidzei heltzeko, orokorretik zehatzagora joko da. Horrela, lehenik, ikerlanaren premisa garrantzitsuenari helduko zaio, alegia, *kalko okerrak* sortu izana ala ez. Horretarako ikasle bakoitzak ekoizpen bakoitzean sortutako kalko kopurua erakusten duen grafikoa osatu da:




4. irudia. Ikasleko *Kalko oker* kopuruen grafikoa

Grafiko honetan ikasleen banan-banako jarduera argi nabari daiteke. Lehen argitu bezala, batzuei baten bat falta bazaio ere, nahiko garbia da joera, alegia, ekoizpen guztietan *kalko oker* bat edo bat baino gehiago ageri dira. 11 ikasletatik 4k ekoizpen bakarra dutenez, ez dago bigarren ekoizpenarekin alderatzerik, baina daukagunetik abiatuta esan daiteke 7 ikasletatik 5ek, %71,4k,

basoan egoten dira bezalakoak. Alegia, aditz trinkorik ez duten aditzek puntukaritasuna adierazteko aspektu burutugabea har dezakete: *Sukaldetik entzuten dut autobideko zarata*. Baina, trinkorik izan ezean, trinkoa erabili beharko da.

kalko oker gehiago egin dutela idatzizkoan, beraz, bik baino ez ahozkoan. Goazen hori apur bat zehatzago ikustera hurrengo grafikoaren bidez:


Ekoizpen bakoitzeko kalko oker kopurua



5. irudia. *Kalko oker* kopuru orokorren grafikoa

Orotara, *kalko oker* gehiago egin dute ahozko ekoizpenetan, %54,9, hain zuzen, eta ahozkoetan %45. Joera nabari bat dagoela ikus daitekeen arren, egokiena litzateke lagin gehiago aztertzea, idatzian lagin bat gutxiago eta ahozkoan hiru gutxiago jaso direla aintzat hartuta, lagin-kopurua berdintzeak ahozko ekoizpenean izandako emaitza handitzea ekar baitezake. Halere, egin dezagun apur bat aurrera, oraingoan egindako

Erauzitako kalko morfosintaktikoen banaketa




kalko oker tipoak eta horien maiztasunak aztertzeko, eta, horretarako, azter dezagun beste grafiko bat:

6. irudia. *Kalko oker* tipoen grafikoa ¹⁹

Irudi honek argiki erakusten du badela *kalko oker* nagusi bat %71,8, izen-sintagmaren esparrukoa den *-a/bat* delakoa, zenbatzailea edo artikulua noiz erabili argi ez dutela erakusten duena. Bere ondotik, baina oso atzean aspektua %7, gerundioa %5,6, partizipioa %4,2, baldintza-perpausetako komunztadura %2,8 eta zehar-galdera %2,8, hurrenez hurren. Gainerako guztiak atzean geratu dira adibide bakarrarekin, eta arraroa bada ere, *elkar zein ere* bidezko *kalko okerrik* ez da ageri inongo ekoizpenetan. Hortaz, batzuk errepikatu dira ikasleen ekoizpen desberdinetan, 12tik 6, %50, alegia; eta aurreikusi bezala, beste ikasle batzuen ekoizpenetan errepikatu dira, ez soilik ikasle baten lagine(t)an. Beraz, maiztasun handiena izan dutenak, eta, hortaz, errepikatu dituztenak honako grafikoan ikus daitezke:

Errepikatu diren kalko okerren maiztasuna



¹⁹ Esan beharra dago aspektuaren *kalko okertzat* – EB Eren sailkapenean soilik egunerokotasun faltsua agertu arren, *-t(z)*en forma burutugabearen erabilera puntukaria ere hartu dela *kalko okertzat*, esaterako: *basoan egoten dira* bezalakoak. Alegia, aditz trinkorik ez duten aditzek puntukaritasuna adierazteko aspektu burutugabea har dezakete: *Sukaldetik entzuten dut autobideko zarata*. Baina, trinkorik izan ezean, trinkoa erabili beharko da.


Oso nabarmena izan da *a/bat* delako kalko okerra ikasleen laginetan. Eta ezinbestekoa da horren inguruan gauza bat argitzea. Kalko horren arazoa da gazteleraz *bat* zenbatzailea izugarri erabiltzen dela, eta, ondorioz, imitazioz euskaraz ere bai. Horratik, hain justu, arazoak sortzen dira. Bada, artikulua *-a* edo zenbatzailea *bat* erabili behar dira honakoak bereizteko:

- a) Ezezaguna *Lagun bat ikusi dut* / Ezaguna *LagunA ikusi dut*.
- b) Balio generikoa adierazteko *AutoaA erosi dut* / Zenbatzeko asmoa adierazteko *Auto bat erosi dut*.

Praktikan, baina, zailtasun apur bat dago imitazioa dela-eta, eta, horregatik, laginetan bi erabilerak nahasturik ageri dira. Ez dituzte biak egoki bereizten, eta horiek *kalko okertzat* hartuak izan dira. Kasu batzuetan, gainera, bi erabilerak ageri dira ekoizpen berean, egokia eta kalkoa. Goazen laginetako zenbait adibide ikustera:


- ...bihurtu zen hartz handi eta lodi bat / hartz batean bihurtu zen Vs ... printze eder bihurtuko zen.
- ...printze bat zela pentsatu zuen... Vs Igelak esan zion neskari printze zela...
- ...igel bat topatu zuen koroa batekin / igela koro bat ipinita dauka... Vs Igela koroarekin agertu zen.
- ...musu bat eman behar Vs ...musu eman erabaki zuen.

Azkenik, ikerlan honetan berebiziko garrantzia duen aspektuarekin zer gertatu den ikusiko dugu, hots, ikasleek zein molderanzko joera erakutsi duten. Goazen irudi bidez ikustera, lehenik idatzizkoaren joera eta gerora ahozkoarena:



8. irudia. Idatzizkoaren aspektuaren erabilera grafikoa

Oraingo grafikoak argi erakusten du idatzizkoaren joera. Bada, 11 ikasletatik batek -K ikaslea- ez du idatziko ekoizpenik egin, horregatik, ez du inolako emaitzarik; gainerakoetatik bik baino ez dituzte bi moldeak nahastu, kontaketa egindakoen artean %20 besterik ez. Halaber, bi kasuetan gehiagotan baliatu dute burutua burutugabea baino.



9. irudia. Ahozkoaren aspektuaren erabilera grafikoa.

Ahozko ekoizpenaren kasuan, ikus daiteke 3 ikaslek, -F, I eta J- ez dutela idatziko ekoizpenik egin, horregatik, ez dute inolako emaitzarik. Gainerako ikasleetatik hiruk baino ez dituzte bi moldeak nahastu, ekoizpena egin dutenen %37,5. Halaber, hiruretatik batek baino ez du gehiagotan baliatu burutugabea burutua baino. Esan beharra dago, aspektuan jauziak egiten ibili diren ikasleak berberak izan direla bai idatzian, bai ahozkoan.

Aditzaren aspektuak kontakizunetan arazoak sortzen ditu, eta metodologian azaldu den bezala, burutua nahiz burutugabea egokitzat hartu arren, ez da hain erraza

egoki baliatzea gaztelaniaren imitazioak ez baitu laguntzen. Egia da datuetan ez dagoela burutugabearen gehiegizko erabilerarik edota bi moldeen gehiegizko nahasketarik. Halere, oso interesgarria da laginetan ageri diren aspektu-nahaskei erreparatzea azaroaz oartzeko, eta, jakina, jatorriari heldu ahal izateko:

D ikaslea

-ta igela bat zen, e... kantatzen ari... ari da, igela. Eta hartu du igela eta eskuan ematen... ematen du eta pentsatzen du:

-Ai nire printzea zen!

Eta e... musu bat e... ematen du igelari igelara... igela, eta momentuz geratzen zen e... pues ikusten ez da... ez da... dakite... ez dakit zer gertatzen zen...

E ikaslea

-Une honetan e... igel... e... igel bat kroatzen entzuten dut. Orduan printzetsak igela hartu zuen e... bere... eskuarekin e... eta konturatu... e... prinzesa konturatu zen e... igelak korona bat e... korona txiki bat zeukan bere... bere burari. Horrela, printzesak pentsatzen du... zuen.

5. Ondorioak

Euskaltegiko ikasleek laginetan helburu ziren fenomenoak –*kalko okerrak* bereziki eta hein txikiago batean aditzaren aspektua kontakizunetan- aztertu ondoren, zenbait ondorio lortu dira.

*Kalko okerre*ri dagokienez, aurreikusitako bezala, ikasle guztiek sortu dute kalko bat edo gehiago bi ekoizpenetan, horietakoren bat faltan duten ikasleen kasuan salbu. Areago, gehienek bat baino askoz gehiago egin dute batean zein bestean. Halaber, ikasleen artean kalko horietako batzuk errepikatu dira idatzizkoan zein ahozkoan, aukeratutakoen artean erdia, hain justu. Horrek erakusten du ez dela gertakari isolatu bat, eta, bestelako ekoizpen bat eskatzekotan, berriro agertuko liratekeela horietako asko.

Ekoizpenen prestaketak ez ditu kalko okerrak murriztu, aurreikusi legez. Bada, ikasleek erakutsi dute aurretiaz pentsatzeko denbora izan arren, imitazioa jotzen jarraitzen dutela, eta, ondorioz, horrek berretsi du hipotesia.

Kontakizunetako aspektu-erabilerak agian ez ditu gauzak gehiegi argitu, lagin gehiagoren azterketa beharrezkoa bailitzateke. Nabaria da batzuen molde-nahasketa, alabaina, kasu horietan ez da hain gardena izan aspektu burutugabearen aldeko joera.

Emaitza batzuk gorabehera, ikerlanak erakutsi du ikasleek kalko okerrak egiten dituztela, askotarikoak, gainera. Erakutsi du egitekoa aurrez prestatzeak ez duela kalko oker horien kopurua murrizten. Eta, halaber, kontakizunetan aspektu-moldeak nahasten dituztela, gutxi bada ere. Hiru fenomeno horiek guztiak gaztelaniaren eraginaren isla dira, hein desberdinetan izanda ere. Ikusi da, beraz, ikasleek euskal ekoizpenak sortzeko gaztelaniara jotzen dutela, hain zuzen, euren H_1 -ren gramatikara, eta hortik elikatuz H_2 -az jabetzen direla. Beraz, horrelako ikerketa batek aukera ona eskainiko du Schwartz eta Sprouse autoreen *Full Transfer and Full Access Hypothesis* hipotesiak testatzeko.

Ez da erraza euskarari laguntzea, ez eta gaztelania nagusi den ingurune batean berau maitatu eta babestea. Eta, batzuetan, betikotasunetik at dauden bideak hautatzen ditugu hori egiteko. Hizkuntza gutxituek nagusien eragina pairatzen dute, eta hori ebidentzia bat izan arren, sarri ikusarazi beharra dago. Ez borroka-gerrarik sortzeko, baizik eta hizkuntza guztien biziraupena bermatzeko. Eta, honakoak bide horretan urrats bat gehiago izatea du xede.

Pozik naiz, oztopoak oztopo, ikerlana egin eta amaitu ahal izangatik. Pozik nik neuk aukeratu dudalako zer ikertu eta nola egin, bidelagun izan dudan tutorearen laguntzaz. Pozik ere ikerketaren bidea nolakoa den ikasi dudalako. Baina, are pozago, hasitako bidearekin jarraitzeko gogoia piztu zaidalako. Hau, hortaz, erakutsi nahi izan dudanaren froga ñimiño bat besterik ez da izan, baina izan bada.

6. Bibliografia

Alberdi, X. (2009). Kalkoen tipologia eta eragina gaurko euskarazko neologian. *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, XLIII, 1-18. [Hemen eskuragarri (2022/03/02): <https://ojs.ehu.es/index.php/ASJU/article/view/1666>].

Alberdi, X. Kalkoen sailkapena. *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. [Hemen eskuragarri (2022/03/02): www.ehu.es/seg].

Dietrich R. & Schmidt M. (2015). Revisiting the Full Transfer- and Full Access Hypothesis. En Hans-Günther Schwarz eta Jürgen Joachimsthaler (Ed), *Ästhetik als Orientierung. Schiller und die Welt* (154-177). Iudicium München. [Hemen eskuragarri (2022/05/08):https://www.researchgate.net/publication/279198505_Revisiting_the_Full_Transfer_and_Full_Access_Hypothesis].

Etxebarria, M. (2004). Español y Euskera en contacto. *Linred: lingüística en la Red*, 1, 1-24.

Etxebarria, M. (2008). Sociolingüística de las lenguas en contacto. *Oihenart*, 23, 77-96.

Euskaltzaindia (2018). *Euskara Batua Eskuliburua*. Euskaltzaindia. [Hemen eskuragarri (2022/04/10):https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&task=sarrera&Itemid=1161].

EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea). [Hemen eskuragarri (2022/05/25): https://eu.eustat.eus/elementos/euskal-aeko-biztanleen-bostetik-hiruk-euskaraz-zerbait-bazekien-2016an/not0014683_e.html].

Ezeizabarrena, M.J. (2015). Kode alternantzia elebidun txikien hizkuntzak bereizteko gaitasunaren adierazgarri. Apud M.J. Ezeizabarrena & R. Gomez (Ed.), *Eridenen du*

zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Garzia, J. (2005). *Kalko okerrak: Ikasmaterialen Aholku Batzordea, estilo-liburuaren bigarren atala*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [Hemen eskuragarri (2022/03/22): https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eima_estilo_liburu/eu_def/adjuntos/kalko_okerrak.pdf].

Ibarra, O. (2014). Tipología y pragmática del code-switching vasco-castellano en el habla informal de jóvenes bilingües. *Lapurdum*, XVIII, 23-40. [Hemen eskuragarri (2022/02/10): file:///tmp/mozilla_zuberoa0/lapurdum-2485.pdf].

Igartzabal, I. (2014). Kode-alternantzia eta hizkuntza-ohiturak Gabiriako bi belaunalditan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 92-93, 229-251. [Hemen eskuragarri (2022/02/10): <https://soziolinguistika.eus/files/I%C3%B1igo%20Igartzabal.pdf>].

Juaristi, M. (2015). *Dinámica de lenguas en contacto: Criollos de vasa hispánica*. [Gratu amaierako lana, Euskal Herriko Unibertsitatea]. [Hemen eskuragarri (2022/02/05): <https://addi.ehu.es/handle/10810/21238>].

Manso, I. (2014). *Euskara eta erdara txandaketak eta kalkoak lehen hezkuntzako eskolako haurren produkzioan*. [Gratu amaierako lana, Nafarroako Unibertsitate Publikoa]. [Hemen eskuragarri (2022/03/02): <https://academica-e.unavarra.es/xmlui/handle/2454/14444>].

Nafarroako Gobernu. *Lenguas Navarra*. [Hemen eskuragarri (2022/004/03): <https://lenguas.navarra.es/eu/munduko-hizkuntzak>].

Rodrigo, I. (2020). *Euskara-gaztelania elebidunen kode-alternantzia: gazteentzako euskal irratsaio baten analisisa*. [Gratu amaierako lana, Euskal Herriko Unibertsitatea]. [Hemen eskuragarri

(2022/03/02):https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/48420/GrAL_Rodrigo.pdf?sequence=2&isAllowed=y].

SEG (Sareko Euskal Gramatika). [Hemen eskuragarri (2022/04/05):
<http://www.ehu.eus/seg/aurkezpena>].

UZEI, 2002, *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.

7. Eranskinak

1. Kalko okerren identifikaziorako Gartziaren irizpide-taula

Kalko Bahea

Bada kalko horren premiarik? Hots, hutsune bat betetzera dator?

Nolako premia?: kontzeptu berria, zehaztapena, ñabardura, sinonimia/konnotazioa, estiloa (maila, erregistroa, tonalitatea...)

Ez dago lehenik horretarako esapiderik euskaraz (egin-egina zein moldatzekoa: hitz-elkarketaz, eratorpen-atzizkiz...)?

Ondo betetzen du bere eginkizuna sistemaz aldaturik? (Gaztelania edo frantses hutsa ez da?)

Erabilia da lehenago euskaraz? Noiztik, non, zenbateraino?

Kalkatzen hasita, ez daukagu eskura eredu hoberik beste erdararen batean?

Bada arau, gomendio edo iruzkinik *autoritateren* batenik, alde nahiz kontra?

Beste norbaitek erabiliko balu, onartuko genuke? (Zorrotzago jokatu zeure buruarekin lagun hurkoarekin baino).

Ez diezaioket erakuts beste norbaiti testua, iritzia eman dezan? (Hobe hori, auzigai den puntua solte eztabaidatzea baino, teoriakeriaren arriskua saihesteko).

Egin dugu behar bezain luze eta ahalegin zintzoz aurreko bederatzi puntuon ibilbidea? Benetan aukerarik onena iruditzen zaigu? Ala apeta hutsa, *gogoak emana* besterik gabe?

2. Bineta edo komiki laburra: "Neska eta igela" (J. Babb)



COPYRIGHT J. BABB

JBABBCOMICS.COM

3. Laginak jasotzeko baimena

GRALerako laginak jasotzeko baimena

Nik, _____ jaun/andreak, eta _____ NANdunak baimena eman diot Zuberoa Barbolla Arlanzoni Euskal Ikasketen Gradua amaitzeko EHUrentzat burutzen ari den GRALean nire ahozko zein idatzizko laginak jaso eta erabiltzeko. Onartu dut, hortaz, datuok jasotzea, ikertzea eta amaierako lanean datuok agertzea ikerketaren parte gisa.

Portugaleten, _____ren _____n

Izenpetuta

4. Ahozko laginen transkripzioak

A ikaslea (1 min 19 s)

Behin batean Mari Pilik irakurtzen ari zen liburu bat. Bat-batean ahots bat entzun zuen:

-Ei, ei, aizu etorri hona! Croack!

Mari Pilik bere ingurura begiratu zuen, baina ez zuen inoiz ikusi. Eta berriro ahotsa:

-Etorri e... etortzeko hona!-esan dizut- croack!

Mari Pili altxatu eta hurbildu zen ahotsarantz, eta orduan ikusi zuen igel lodi bat. Igelak

hartu eta eskuan zenean, igelek esan zion:

-Musu bat emango bazenit, printzea bihurtuko naiz, eta nire printzesa egingo zaitut, croack!

Mari Pilik sinetsi zuen, eta musu bat eman zion masailari. Baina bat-batean igela disdira hasi zen, eta bat-batean igela hartz erraldoi eta lodi bat bilakatu zen. Igela printzea zen, bai, baina iruzurraren printzea, ja,ja,ja!

B ikaslea (1 min 7 s)

E... Itziar naiz eta ipuin bat kontatuko dizuet. E... bazen behin e... neska bat e... liburuak asko gustatzen zitzaiona, eta egun batean e... basora joan zen e... liburu bat irakurtzera. E... bat-batean soinu bat entzun zuen eta e... bere alboan e... igela bat ikusi zuen. Igela e... koroa... koro bat e... zeukan e... bere buruan. E... igelari musu bat ematen bazion e... printzea bihurtuko zela pentsatuz, e... igela bere eskuetan hartu zuen eta musu bat eman zion. Bapatean igela dardarka hasi zen, eta e... hartz batean bihurtu zen. Hartza oso haserretuta zegoen, bera igela izaten jarraitu nahi zuen, horrexegatik, e... neska zigortzeko e... neska jan zuen.

C ikaslea (2 min)

E... egun on, Igor naiz eta historia bat kontatuko dut. E... historia hau e... bada e... neska bikote bat aurkitu nahi zuen. Eta bazen behin basoan zegoen liburu bat irakurtzen eta bapatean e... igel bat e... ikusi zuen e... croack-croack egiten. Bera konturatu zen eta igelaren bila joan zen. Igelaren bi e... e... zegoen eskuetan bitartean e... konturatu zuen e... korona bat zeukala igela, eta... musu bat bota zuen eta... bapatean e... igela hartza bihurtu zen. Hartza e... oso handia zegoenez, beraren... berarenera joan zen e... intentsio

e... txarrarekin. E... printzesa e... harrituta geratu zen eta... ez zuen denborarik e... ihes egiteko, eta hartza hartu zuen neska eta... gose handia duenez, e... pues e... jan zuen printzesa. Eta bueno horrela bukatu du historia e... eta bueno e... hau esan nahi du dena ez da... ikusten dena.

D ikaslea (2 min 19 s)

E... istorio... istorio bat kontatuko dizuet. E... egun batean e... neska bat e... basoan egoten dira e... irakurtzen liburu bat oso... oso polita. Eta neska hau oso lasai egoten zen e... irakurtzen. Baina bapatean e... entzun... entzun du zerbait eta e... gertatzen zen... e...entzuten:

-Zer da, hau?- pentsatzen du-.

Eta igela bat zen, e... kantatzen ari... ari da, igela. Eta hartu du igela eta eskuan ematen... ematen du eta pentsatzen du:

-Ai nire printzea zen!

Eta e... musu bat e... ematen du igelari igelara... igela, eta momentuz geratzen zen e... pues ikusten ez da.. ez da... dakite... ez dakit zer gertatzen zen, eta bapatean e... igela hartz handia eta oso haserre e... bihurtzen... bihurtzen da. Eta e... beldur handia ematen du e... neska. Eta hartz horrek jaten du neska. Eta e... neska jan eta gero, oso lasai geratzen da hartza. Eta... badago istorioa. Zer tristea da! Nik pentsatzen dut printzea zela, baina hartza zela!

E ikaslea (1 min 39 s)

E... ni Manolo naiz e.. istorio bat kontatuko dut. Ba... e... behin bazen printzesa basoen zegoen e... liburu bat irakurtzen. Une honetan e... igel... e... igel bat kroatzen entzuten dut. Orduan printzetsak igela hartu zuen e... bere... eskuarekin e... eta konturatu... e... printzesa konturatu zen e... igelak korona bat e... korona txiki bat zeukan bere... bere burari. Horrela, printzesak pentsatzen du... zuen igela sor...sorgi... sorginkeriak igel bihurtuko... bihurtutako printze bat e... zela. Hori dela eta, musu bat igelari eman zion sorginkeria konpontzeko asmotan. Baina ba-batean egela hartz handi bihurtzen zen, eta zoritxarrez hortzak printzetsa e... jan zuen azkenean. Eta hau hala ez baz... bazen ser dadila kalabazen.

G ikaslea (1 min 25 s)

Bueno kontatuko dizuet historia, hau da. Egun batean, baso batean printzesa bat zegoen liburu bat irakurtzen. Eta bera zegoen oso trankil... eta oso pozik. Eta bapatean igel bat koronarekin agortu zen. Printzesa igela ikustean, printze bat ze... printze bat zela pentsatu zuen, eta musu bat ematen banion, printze eder bihurtuko zen- hori pentsatu zuen-. Baina musua eman zionean, igola... igela ez zen printze bihurtu, har baizik, izugarri bat. Eta printzesa memela hartz e... jan egin zuen. Printzesa memela, zergatik nahi zen printze bat zuk bakarrik ond... zein ondo bizitzen zela! Eta zergatik nahi zenuke printzes batekin egon? Ai printzesa, printzesa holan amaitu duzu! Eta halan bazan edo bazan k... e.. sar dadila kalabazan eta adira dadila Portugaleteko plazan.

H ikaslea (2 min 18 s)

Neska bat kokotaraino zegoen, eta mendira joan zen e... bakarrik e... egoteko. Jesarri zen herri... harri batean eta irakurtzen hasi zen. Oso konzentratuta zegoen eta bere burua zerura joan zen. Bapatean bere ametsetan iger bat agertu zen korea batekin, eta bapatean igela... igelak esan zion:

-Kaixo neska, ni printzipe bat naiz!

Baina e... hori, baina neska harrituta geratu zen. Kri-kri, kri-kri, krau-krau. Igelak esan zion neskari musu ema...teko, baina neska ez zekien ondo egin ala ez. Azkenean erabaki zuen neskak musu bat eman. Eta bapatean igela ez zen bihurtu printze hartza baizik eta jan zuen. Neska azkenean esnatu zen, eta gogoratu zuen bere ametsa. Eta pentsatzen zuen: neska ezin zen hil kontraeragatik.

K ikaslea (1 min 35 s)

Bueno Juan Carlos naiz eta hau da nire istorioa. E...Uxue neska bat da eta baserri batean bizten da. Asko gustatzen zaio printzeseko istorioak. Egun batean eguzkia zeruan dilistan e... zeruan dago ze... e... zeruan zegoen. Eta Uxue zuhaitzaren ondoan zegoen eserita. Liburuzko printzesaren istorioa irakurri zuen. Bapatean croak croack entzun zuen bere ondoan eta bere aurrean ikusi zuen igel bat. Igel oso polita zen eta Uxue pentsatu zuen:

-Agian printzese... printzes bat da!

Uxue hartu zuen igela eta musu bat eman zion. Baina igela ez zen bihurtu printz...
bihurtu zen printze batean. Hortz handi bat eta oso goisi baizik. Azkenean Uxue han...
hartzaren sabalean amaitu zen. Eta hau da nire istorioa oso polit bat.

5. Idatzizko laginak

A ikaslea

Mari Pili irakurtzen ari zen landa batean, isiltasuna nagusia zen leku berran, baina bat-batean ahots bat entzun zuen Mari Pili giza jaa.

-Eg, aizu, etorrihona!, eoa!

Ahotsa infauntik etorri etortzen dela ematen du, baina aldi berean nagusia inuditu zen Mari Piliari, hortas izotzuta garatu zen, gihar sustia lotuta.

-Hemen etortzeko esan dizut. -Emepikatu zuen ahotsak hundan gehiagorekin.

Adonea beneskuratzean altxatu zen eta ahotsarantz abiatu zen. Goiz ikusi zuen igel lodi bat korotarekin.

«E demontae da hau» - pentsatu zuen nekakilak.

-Kaixo Mari Pili, - esan zuen igelak turrustean; eta Mari Pili ia lunera erosi zuen. - Zutar gogoratzen dut, - jarraitu zuen igelak -, nire garteluan landu ibili zinen maldizica ondoren.

Nola ote zekien igel horrek hori? Puntzea izan ahal litzateke? Hori posiblea zen?

-Muru bat emango zenuidake, -jarraitu zuen igelak -, berriz biziko zara nirekin garteluan, baina nire ematea gisa.

Zer aterako litzateke txarto?, pentsatu zuen giza jaa eta pentsatu gehiago gabe muru bat eman zion igelari masilian.

Muru ondoren igela disdina hasi zen eta Mari Piliaren harriduradarako bihurtu zen hartz handi eta lodi bat. Martz puntzeak atzakamapada batekin hil zuen Mari Pili eta segidan jau zuen.

Bera puntzea zen bai, baina inuzumaren puntzea.

B ikaslea

Basoan neska bat zegoen, bera bakamiu, eiburu bat irakurtzen. Bat-batean bere alboan soina bat entzun zuen, eta bentona besira igel bat topatu zuen. Korra batekin, Neskak eiburu batean irakurri zuen, nola igel bati musu bat emateko badiotzu, printze batean bihurtzen dela. Orduan, hori esia zela pentsatu, z igela bere eskuetan hartu zuen eta musu bat eman zion.

Hasieran funtzionatu ez zuela pentsatu zuen baina minutu bat pasa ondoren, igela dan-danka hosi zen neskaen eskuetan. Une batean igela hantze batean bihurtu zen. Hantza oso haserre zegoen. Neska oso ilanatu eta zegoen eta hantzan zengatik haserre zegoela galdetu zion. Hantzak berak igela izateko jarraitu nahi zuela erantzun zion. Orduan, neska zigortzeak, bera jatea erabaki zuen.

C ikaslea

Baten behin, printzesa basoan zegoela, bera oso aspertuta zegoenez liburu bat irakurtzen nahi zuen eta zuhaitzen artean abiatu zen hain polit eta erosoa bilatzen.

Baso erdiarekin zegoen bitartean hain bat aurkitu zuen eta hain eseri zen liburu irakurtzeko.

Liburu irakurketa duen bitartean, ikusi omen zuen igel bat abesten, nahiz eta printzesa ondo ez ikusi, berarengana abiatu zen abestia hobeto entzuteko, baina, heltearekin ikusi zuen igel korona batekin. Printzesa bere aburuz pentsatu zuen printze polit bat itaingo litatekeela, horregatik musu bat eman zion igela printze bihurtzeko. Momentu horretan igela mogimendu gogorak hasi zen esiten hartu batean bihurtu arte, heri dela eta, bera ez zegoen harrituta

bere laguna itaingo delarela pentsatu zuen eta baina nahastu egin zen eta hartu zuen.

Ipuina kontuarekin hartuta, irakaspena itaingo da, ezin zarela inerekin fidatu.

D ikaslea

Neska bat basoan liburu bat irakurtzen
aiz da, oso lasaia epotea da eta bat
batean zerbait entzun du zer da?
pentsatu du. Ipel bat da, abertu ari
da.

Neska bere hala joan da eta eskuanekin
hartzu du. Ipel koro bat ipinita dauka
eta neska pentsatzen du pinta bat
dela, homepatik, musu bat eman dio,
baina momentuz ez ez pertotzen, baina,
bi minutu pasa eta pira ipel hartu
handi bat lihurtu da, paimera hartze
oso handia eta oso haserri dago, uste
dut pira daukatele neska jan duela
Hartze neska jan eta pira oso lasaia
feratu da eta hau hala ez bazen sas
dadila kalabazan eta inter dadila Dertoko
plazan.

E ikaslea

Egun batean, printzesa bat baxoan ze
goen liburu bat irakurten. Bat batean, igel
bat krockatzen entzuten duf. Orduan prin-
tesak igela hartu zuen bere eskuarekin
eta konturatu zuen igelak korona txiki bat
zeukan bere buruari. Hortaz, printzesak
pentsatu zuen igela sorginkeriak igel
bihurtutako printze bat zela. Hori dela-
eta bi aldiz pentsatu gabe musu bat igelari
eman zion sorginkeria konpantzeka.

Baina, en zen gertatu nola pentsatzen zuen
igelak hartz handi bihurtzen, eta zoritxarez
hartak printzesa jan zuen azkenean.

Eta hala bizen edo ez bizen sar-
dadila kalabazan eta irten dadila Per-
fugaleteko plazan.

Fikaslea

Egun eder batean mendian neska bat irakurtzen zegoen. Bapatean igel korradun ikusi zuen eta pentsatu zuen arraroa zela. Hartu zuen igela bere eskutian eta ipinietan agertzen diren igelak printzeak direla gogoratu zuen, baina printze bihurtzeko unean bat eman behar zidela.

Horregatik unean eman erabaki zuen eta begiak itxita egin zuen.

Berehala gauza arraroak egin hasi zen egela eta bapatean igela hartu bihurtu zen. Gainera hartu oso aldarte txarra zegoen eta saltu batean neskaen gainean bata zuen bere burua.

Harta ez zuen ipinietan sinatzen eta presarik gabe, baina etenik gabe neska jau zuen hezurak bakarrik utzi arte.

Irakaspena: Ipiniak, eleberiak edo beste irakurketak izugarri onak dira gauzak ikasteko eta zure bizitzetarako erakorrean baiua kentuz ibili! igelak 'ez dira' bihurtzen printzeak. Igelak igelak dira eta aldatzen badira hartak ahal izan dira. Eta nahi baduzu printze bat zure bizitzan zain zaudela.

G ikaslea

- Egun batean, bera batean, puitze
bet zegoen liburu bat izan zuten.
Bapatean, igel bat koronakari
agente zen.
Puitze igel ikustean, puitze
bat zela pentsatu zuten, eta,
muru ematen berriz, puitze edo
bat bihurtu zela.
Baina, muru emandakoa, igel
ez zen puitze bihurtu, HARTZ baxirik
Hartz izenari bat agente zen.
Eta puitze zegoen! Hartzak
jan egin zuten
Eta hala baxirik edo ez baxirik,
San dadile klubean eta atera
dadile Portu Gileketeo plazan!

H ikaslea

Neska kokotaraino zegoen eta erabaki zuen mendia joatea mundutik desagertzeko. Hari batean jesari zen liburu batekin. Oso kontzentratu zegoen istorioa izugarria baitzen. Amets bezala zegoen inakurtzen eta imaginatu zuen bere kontsena...

Egun batean, mendian zegoenean igela korearekin agertu zen bere endoa. Igelok esan zien neskeri printze zela eta seilik musu batekin printze bihurtuko zela. Neska harrituta geratu zen. Ez zekien hoi egia den, baina, bere buruari esan zien ez zuela ezer galdu. Azkenean, erabaki zuen musua ematea. Eta, bat-batean, igela printze ez zen bihurtu, hartza baizik. Hartza bere gainean zegoen, bera konturatu gabe, bere burua janz.

Neska esnatu zen... eta pentsatu zuen mundua aldatu behar duela, neskek ezin dute beti beren bizi galdu kontsenaatik!

I ikaslea

Bazen behin, neska bat, Anne Anne,
entzaino da eta euskaraz ikasten zuten lana
edukitako

Egun batean, Annek, ikasten ari zela euskaraz
hurrengo epinean B2-ko arte bota zenukaldako

Bat-batean, ijel bat sartu zen - kin-kora -
Anek - Ah! Ijel bat! - ean uen
Anne ijelaren hurbildu zen oso ikusmina
zeldak, hertz eta pentsatu zen:

- Ipurrek kantaren dutenez, beharbada print
bat da eta uen bat ematen bait, printez
bihurtuko da. Berarekin eskanduko eta
printzesa baysa uait terapeutik, abertza
baysa uait eta ihait ez dut lan epin behor
eta euskaraz ere et Georginaren eta
eta Rinaldoren audio-historia berak! -

Anne lunkitua zegoela bere plonapatik
ijeleni uen bat eman zion eta tipustean
ijela hartz bihurtu zen! - Anny -

Hartza lasetu zegoela Anneen plank
entzain zituelako eta Anne jau zuten
- Je neska zikina! - ean zen hartak

Inakopena:

Et espero gizon batek zue bikiza konpartea
eta zue zuek epin neska!

eta hau hola et boran sar dadile kobratam

J ikaslea

Egun Egurkitsu batean, neske bat irakurten
aritzen liburu bat bazean, bat-batean,
Korodadun apo bat laguntza eske zehilela
Ikusi zuen. Bere, apala honell, puzatzen,
Zuen apa printze bat zela eta gertatzen
zituzen trusteren goan zen. Andoren, musu
bat eman ziren eta musu honelari onats gertial
kompenduko zituzien printze bihurtuko zela
Puzatzen.

Tipustean apa distiratzan hasi zen eta
printze bihurtu beharman hartz basati bihurtu
zen, Itanatu egun zuela
Auzaitako, hartz gortial neska yau eta
hezunak bakarik etzi zituen.